



ARARTEKOAK LGTB ARLOAN EGIN DITUEN JARDUEREI BURUZKO DOSIERRA

2011KO EKAINA

Arartekoak LGTB arloan egin dituen jarduera nagusiei buruzko dosierrean sartutako agiriak:

1. **Europako RAINBOW proiektuaren laburpena** (Rights Against Intolerance: Building an Open-minded World). Proiektu hori eskoletan homofobiaren eta transfobiaren kontra borrokatzeko da, eta Ararteko erakundea 2011-2013 aldian garatzen ari da, Europako 7 herrialdeetako beste 9 erakunderekin batera.
2. **Adin txikiko LGTBak, arrisku egoera berezietan dauden haur bezala.** Azterketa eta gomendioak. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezi honen laburpena: *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*, Vitoria-Gasteiz, 2011.
3. **LGTBei arreta emateko Arartekoaren arloa 2010. urtean.** Arartekoak Eusko Legebiltzarrari 2010. urteaz egindako txostenaren laburpena.
4. Arartekoaren 4/2010 Gomendio orokorra, abenduaren 23koa, **"Familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzea"**ri buruzkoa.
5. Euskadiko transgeneroei eta transexualei buruz Arartekoak egindako gomendioak. Arartekoak Eusko Legebiltzarrarentzat prestatutako txosten berezi honen laburpena: *Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin*, Vitoria-Gasteiz, 2009.
6. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko foroa, Arartekoak izenburu honekin antolatua: *Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan*, Vitoria-Gasteiz 2009 (Foro horretako eztabaiden laburpena).
7. **Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 19koa**, transexualak babesteko asmoz, udalaren kirol ekipamenduetan banakako duxtak eta aldagelak jar daitezzen.
8. Homosexualen duintasuna. *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia* izenburuko liburuaren laburpena, Vitoria-Gasteiz 2009. Arartekoak 2005eko uda ikastaroa zela-eta argitaratu zuen liburu hori.
9. Euskadiko lesbianen ikusgaitasunari eta partaidetzari buruzko ondorioak. Arartekoak argitaratutako liburu honen laburpena: *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*. Egilea: Inmaculada Mujika Flores, Vitoria-Gasteiz, 2007.

1. **Europako RAINBOW proiektuaren laburpena** (Rights Against Intolerance: Building an Open-minded World). Proiektu hori eskoletan homofobiaren eta transfobiaren kontra borrokatzeko da, eta Ararteko erakundea 2011-2013 aldirian garatzen ari da, Europako 7 herrialdeko beste 9 erakunderekin batera.



RAINBOW – Intolerantziaren aurkako eskubideak: aurreiritzirik gabeko mundua eraikitzen

Eskatzailea	Centro Iniziativa Gay Onlus (www.arcigaymilano.org/)
Jarduera sektorea	Ikerkuntza eta gizarte hezkuntza.
Testuingurua	Proiektuak Europa eremuko gay eta lesbiana elkarteak, ikastetxeak eta komunikazioko profesionalak lotzen ditu, haur, nerabe eta gazteen sexu nortasunari dagokionez, eskubideak sustatzeko eta homofobia eta transfobiaren aurka borrokatzeko funtsezko eragile gisa, dauden estereotipoak aztertu eta hezkuntza tresnen bidez haiei aurre egiteko xedez.
Helburu taldea	Haurrak, nerabeak eta gazteak, hezkuntzako profesionalak.
Jarduera eremua	Belgika, Bulgaria, Alemania, Herbehereak, Italia, Espainia, Erresuma Batua
Bazkideak	<ul style="list-style-type: none"> - Arcigay - Associazione Lesbica e Gay Italiana, Italia - European Children's Film Association, Belgika - Synergia srl, Italia - Farapi Antropologia Aplicada, Espainia - Social Activities and Practices Institute (SAPI), Bulgaria - Jekino Distributie vzw., Belgika - Bundesverband Jugend und Film e.V. (BJF), Alemania - Nederlandse Vereniging tot Integratie van Homoseksualiteit COC Amsterdam, Herbehereak - LGBT Consortium, Erresuma Batua - Arartekoa, Espainia
Helburu nagusia	Proiektuak sexu nortasunerako eskubideari eta homofobia eta transfobiaren aurkako borrokari heltzen die. Asmoa estereotipoak aztertu eta haiei hezkuntza tresnez aurre egitea da. Hezkuntzako profesionalak (batez ere irakasleei, baina baita ingurune informaletako hezitzaileei ere), eta azken onuradunak izanda, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ikerketa erabiliz.
Berariazko helburu	<p>Proiektuaren helburu nagusia honakoak garatzea da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Europa mailan, hezkuntzan dauden genero estereotipoak, homofobiari eta transfobiari lotutako politiken eta teorien ezagutza; bertan, hari buruzko egungo legedia eta politikak sartzen dira, Homofobia eta



bereizkeria sexu joeraren eremuan Europako Estatu kideetan (Oinarrizko Eskubideen Europako Agentzia, FRA, EB) txosten berrian aurkeztu diren bezala;

- hezkuntza alorreko arduradun helduen artean eta, zeharka, ikasleen artean ere hezkuntza maila guztietan genero eginkizunei eta homosexualitateari lotuta dauden estereotipoen ezagutza konparatua (Europa maila egiazkoan, Estatu kide asko biltzen dituzten erakundeen arteko lankidetzaren ondorioz);

- Estatu kideetako eskoletan, sexu nortasunerako eskubidea, eta homofobia eta transfobiaren eta jazarpen homofobikoaren aurkako borroka sustatzeari dagokionez, egun gertatzen diren esperientzia eta jardunbide egokien ezagutza konparatua;

- herrien arteko jardunbide on eta esperientzia trukea aipatu ekimenei buruz, Estatu kide bakoitzean bideratzeari eta eskolako langileak engaiatzeari begira;

- aztergaiari lotuta dauden ikus-entzunezko produktuen ezagutza;

- hezkuntza tresna batzuk sortzea -zati bat ikus-entzunezkoa eta beste zati bat paperean (gida)-, eskoletan banatu eta erabiltzeko eta sexu nortasunarekiko begirunean hezteko eta homofobia eta transfobiaren aurka borrokatzeko balio dezan;

- proiektuaren hartzaileak diren irakasle eta ikasleekin tresna horien eraginkortasuna egiaztatzea eta ebaluazioa egitea, transferentzia ahalmena eta hartzaile zuzenen (irakasleak) eta zeharkakoen (haurrak eta nerabeak) erantzunak baiesteko;

- jolas-tresna multzo bat sortzea 16 urtez gorako hezkuntza testuinguru informaletan, hala nola GLBT diren edo ez diren elkarteetan (kultura, kirol, gazte elkarteak, etab., eta hezkuntza zentro ez formalak) sexu nortasunaren begirunean hezi eta homofobia eta transfobiaren aurka borrokatzeko xedez.

- eragile sare zabala (batez ere eskolako langileak, komunikazioko profesionalak, elkarteak) estereotipoen, homofobia eta transfobiari buruzko kontzientzia hartzean eta eskolan lantzeko ekintza zehatzen garapenean engaiatzea.

- proiektuaren emaitzak eta ondorioak zabaltzea, bitarteko ahaltzu eta berehalakoen bidez –besteak beste, irudia eta zinemaldiak- eta webaren bidez, Europa mailan ahalik eta pertsona gehienengana iristeko;



	<p>- Europako herri guztietako irakasleentzat hezkuntza tresnak Europako zenbait hezkuntzatan eskuragarri egotea, euren eskola curriculumean erabili eta, garapenaren etapa goiztiar batetik, sustapenari eta prebentzioari zuzendutako ikuspegitik, sexu nortasunaren gai zaila lantzeko. Haurrek oso gaztetatik garatzen dituzte estereotipoak eta aurreiritziak, gai horiek inguratzen dituen isiltasunagatik, eta helduen euren, familiaren eta eskolaren estereotipo eta zailtasunengatik ere bai, lehenbizi.</p>
<p>Laburpena</p>	<p>Proiektuak, sexu nortasun eta joerari dagokienez, haur, nerabe eta gazteen eskubideak sustatzen dituzten Europako gay eta lesbiana elkarteak, eskolak eta komunikazioko profesionalak homofobia eta transfobiaren aurka borrokatzen direnei lotzen ditu, xedeak honakoak izanda:</p> <p>A) estereotipoak ikertzea eta</p> <p>B) haiei aurre egin, hezkuntzako profesionali (batez ere irakasleei, baina baita orokorrean hezitzaileei ere), eta azken onuradunak izanda, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ikerketa erabiliz.</p> <p>Ikerketa IT, ES, NL eta BGn burutuko da, herri bakoitzeko gutxi gorabehera eskola eremuko 35 profesionalak (140 lagun) hartuko dute parte, eta administrazio sail batek (GBn ere bai) eta landa-laneko atal batek osatzen dute.</p> <p>Hezkuntza inguruneetako estereotipoei eta homofobia eta transfobiaren aurka borrokatzeko ekintzei buruz dauden agiriak aztertuko ditugu. Ondoren, ikerketa bat egingo dugu tresna eta emaitza konparatibo batzuen bidez. Landa-lanean lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta batxilergoko eskola ingurune eta sistemako pertsona helduek jardungo dute (irakasleak eta gurasoak edo beste hezitzaile mota batzuk ere bai).</p> <p>Elkarrizketa kualitatiboek eta lan taldeek honakoei helduko diete:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hezitzaileek homosexualitateari buruz dituzten estereotipoak eta jarrerak; • haurren estereotipoei buruz duten iritzia; • hezitzaileek eskoletan gaiari heltzeko moduz dituzten ideiak; • eskoletan sexu nortasuna, homofobia eta transfobia lantzeko ezarrita dauzkaten esperientzia/proiektu zehatzak eta jardunbide onak.



Agiriak aztertutakoan homosexualitatearen eta transexualitatearen esanahiari buruzko bestelako "ikuspegiak" eskaintzeko eta homofobia eta transfobiaren aurka borrokatzeko ekintza eraikitzeko oinarria izango dugu.

Hezkuntza tresnak (hasiera batean, tresna pilotuak) IT, GB, L, BG eta ESKo irakasle eta talde batean (gutxi gorabehera 10 irakasle eta 20 ikasle herri bakoitzeko, guztira 50 irakasle eta 100 ikasle) ere ebaluatuko ditugu.

Film laburren hautapenarekin edo film luzeen laburpenekin hasita, hezkuntza tresna batzuk sortuko ditugu, derrigorrezko hezkuntzako (Europako herri gehienetan hezkuntza maila horretan ematen baita gutxien sexu eta emozio hezkuntza) irakasleentzako erabiltzailearen gidaliburua barne, eta zenbait herritan (gutxienez, ES, IT, BE, NL, DE, BG, BGn) eta haur eta gazte zinemaldietan (1000 ikusle aurreikusi dira) banatuko dira.

Gazteengana, aurrekoak baino adin handiagoko talde gisa, iristeko beste modu bat, kultura, aisialdi eta kirol elkarteetan diharduten neska-mutil gazteei (baita gay eta lesbiana elkarteei, baina ez haiei bakarrik) zuzentzea da, nerabeek eta nerabeekin (gutxienez 10 elkarte eta 1000 gazte daude sartuta) aisialdian erabiltzeko jolas-tresna multzo baten bidez.

Talde hori Europako zinema lehiaketa baten hartzailea ere bada; bertan, homofobia eta transfobiaren aurkako laburrik onenagatik lehiatuko da. Ikerketaren emaitzek (hitz giltzarriak eta agertutako arazoak) ondoren aurkeztuko den ekoizpenaren izenburua emango digute. Pelikula irabazleak gay eta lesbiana pelikulen eta queer kulturaren MILAN MIX jaialdian eta ECFari lotutako beste jaialdi batzuetan erakutsiko dira.

Proiektuaren emaitza nagusiak honakoak izango dira:

- Testuinguruko txostena hezkuntza inguruneetako estereotipoei eta homofobia eta transfobiaren aurkako borrokari buruz;
- irakasleen eta ikastetxeetako arduradunen estereotipoei eta sexu nortasunaren gaineko ideiei buruzko ikerketaren txostena, zeharka haurrek, nerabeek eta gazteek dauzkaten estereotipoei, jarrerei eta arazoei ere antzematera zuzenduta;
- sexu nortasuna, homofobia eta transfobia lantzen duten eskoletan ezarritako proiektu/esperientziei buruzko ikerketaren txostena;
- hezkuntza tresnen aurreko lehen erantzunei buruzko ebaluazio txostena;



- adinen arabera dibertsifikatutako DVDA derrigorrezko eskolatzeko aldiko haurrentzat (6-16 urte), gelako lan tailerretan erabiltzeko eta jarrera ez homofobiko/transfobikoak garatzeko erabilgarria izateko;
- irakasle eta hezitzaileentzako gidaliburua; ikerketaren emaitzen laburpena eta aipatu DVDA proiektatu eta azaldu edo praktikatzeko bereziki zuzendutako erabilera argibideak jasoko ditu eta lan tailerrak eta ikasgaiak bideratzera dago zuzenduta. Horrek, DVDarekin batera, hezkuntza tresna osatzen du, azpitoluekin eta Europako kide guztien hizkuntzetarako (+ euskararako) itzulpenarekin;
- nerabeek eta gazteek, eta nerabe eta gazteekin, hezkuntza esparruetatik kanpoko testuinguruan erabiltzeko jolas-tresna, italieraz, ingelesez, espainolez eta euskaraz;
- lehiaketan parte hartutako labur guztiak biltzen dituen DVDA;
- proiektutik eratorritako produktu guztiak gordetzeko eta erraz jaisteko web orria.

2. Adin txikiko LGTBak, arrisku egoera berezietan dauden haur bezala. Azterketa eta gomendioak. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezi honen laburpena: *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*, Vitoria-Gasteiz, 2011.

ARRISKU EGOERA BEREZIAN DAUDEN ADINGABEAK

Arartekoaren txosten berezia Eusko Legebiltzarrarentzat



3.12. Joera homosexuala (lesbianak edo gayak) edo bisexuala edo genero nortasun transexual edo transgeneroa duten adingabeak

Erakunde hau kezkatzen duen problematiketako bat gazte homosexualena (lesbianak eta gayak), transexualena eta bisexualena da (aurrerantzean *lgtb*). Joera afektibo eta sexualen aniztasuna nahiz nortasun transexuala eta transgeneroa ez daude behar bezala onartuta, eta oraindik ez dute normaltasun mailarik gure gizartean. Horrek eragin egiten du *lgtb* nerabe ugari egunero beren errealitatea onartzen ez duten egoeretan bizi behar izatea, eta beren familietan, eskolako ingurunean eta aisiakoan gutxiespen irekia ere bizi behar izaten dute.

Arartekoak hainbatetan azpimarratu du beharrezkoa dela politika publikoak martxan jartzea eta horien bitartez baldintza egokiak sortzea *lgtb* nerabeek behar bezain babestuek edukitzeko beren oinarrizko eskubide hauek: duintasuna, osotasun fisikoa eta morala, nortasunaren garapen askea, askatasuna eta tratu berdintasuna, eta segurtasunerako eskubidea eta etsaitasunezkoa ez den giro batean egotekoa.

Erakunde honek gaiari buruz bideratu dituen jarduerak hainbat izan dira. Besteak beste, Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko V. Foroa azpimarratu nahi genuke, 2008ko irailean antolaturikoa gai honen inguruan: *Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta soziaziazioan*. Foro horretan esperientziak, kezak eta profesional ezberdinen proposamenak trukatu ziren gai ezberdinen inguruan, esate baterako, nerabeek sexu aniztasunaren aurrean dituzten jarreraren, *lgtb* nerabe eta gazteen problematikaren aurrean gurasoek duten ikuspegiaren, *bullying* homofobikoaren, hezkuntza sistemako heziketa afektibo eta sexualaren, eta abarren inguruan. V. Foro horretako esku-hartzeak eta emaitzak orain dela gutxi argitaratu dira.

Bestalde, 2009. urtean, *Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin* izeneko txosten berezia aurkeztu zen. Bertan, zaurgarritasun gehiagoko egoeran dauden transgeneroa duten pertsonen eta transexualen profil batzuk erakusten ziren. Horien artetik haurrak eta nerabeak azpimarratu ziren. Haurtzaroan eta nerabezaroan adierazle eta diagnostiko egokirik ez egoteak eta adingabe horiek tratamendu hormonal eta kirurgikoetatik kanpo uzteak zaurgarri bihurtzen ditu, izan ere, kasu gehienetan, sufrimendua murriztuko dien jarraipena edo arreta eskuratzeko aukeratik kanpo geratzen dira. Txostenean egindako gomendioetako batzuk hezkuntzaren esparruari zuzenduta daude, eta heldu egiten diete prebentzioko berariazko neurriak garatzeari, indarkeriako edo bazterkeriako edozein egoeraren aurrean, transgeneroa duten eta transexual diren ikasleei babesa eta laguntza emateari, nahiz mekanismoak jartzeari transexualak diren eta transgeneroa duten ikasleei beren sexu psikologikoaren araberako izena eman diezaieten.

Urte horretan bertan, argitara eman zen ere *Adingabekoei balioak transmititzea* izeneko txosten berezia. Azterlan horretan adin ezberdineko (8 urtetik hasi eta 16 urte arte) 1.800 ikasle baino gehiagoren lagin baten jarrerak, portaerak eta aurreiritziak aztertu ziren. Azterketa hori Deustu Fundazioko ikerketa talde batek egin zuen, Javier Elzo irakaslearen

zuzendaritzapean. Jorratutako gai nagusietako bat, hain zuzen ere, ikasleen jarrerena zen sexu joera ezberdinen aurrean.

Ikus ditzagun txosten horretatik eskuratutako datu batzuk. Horietan, haur eta nerabeen intolerantzia, gutxiespen eta homofobia maila zein den ikus daiteke.

DBHko ikasleen %23,2 ados dago baieztapen honekin: *“Ez litzaidake batere gustatuko nire irakaslea homosexuala izatea”*. %19,9, bestalde, adostasunaren eta adostasun ezaren arteko jarrera zehaztugabearen egongo litzateke. Ikus ditzagun beste baieztapen batzuen kasuan emandako erantzunak: *“Lotsa emango lidake nire neba/ahizpa bere sexu bereko norbaitekin ezkontzeak”*: %29 ados dago eta %22,7k ez du jarrerarik adierazten. *“Inoiz ez nintzateke pertsona homosexual baten laguna izango”*: ideia horrekin bat dator gazteen %14,1 eta %15,6k ez du gaitzesten. *“Homosexualei ez litzaieke seme-alabak haztea onartu behar”*. %16,7 ados dago eta %17,3 adostasunaren eta adostasun ezaren artean. *“Homosexualitatea gaixotasun bat da”*. %12,8k ideia horrekiko atxikipena du eta %12,6k ez du gaitzesten. *“Homosexualitatea ez da normala eta amaitu egin beharko litzateke”*. %13,8 alde dago eta %16,7 ez dago aurka. Eta iritzi horren ondorio modura: *“Homosexualen aldeko manifestazioak debekatu egin beharko lirateke”* ideiarekin bat dator %20,7 eta ez du gaitzesten %22,9k.

Erantzundako galdeketetako beste galdera batzuk (hurrenez hurren, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako eta DBHko ikasleentzat hiru ezberdin egin ziren) antzeko erantzun eta datuak eskaintzen dituzte. Pertsona homosexualekiko –eta transexualekiko– gutxiespen maila oso kezagarria da ikastetxeetako ikasleen artean. Horrek esan nahi du jarrera erasokorrrak, estigmatizaziokoak edo gutxiespenekoak daudela joera homosexualeko edo nortasun transexualeko nerabe edo irakasleen aurka (eta hori hitzezko erasoak edo eraso fisikoak ez daudenean). Pertsona hauei nork ematen die babesak? Duintasunerako, osotasun fisiko eta moralerako, nortasunaren garapen librerako edo berdintasunerako oinarrizko eskubideak nola zaintzen zaizkie?

Gaiaren egoera testuinguru egokian kokatze aldera, aintzat hartu behar dugu orain hogeitau urte besterik ez, hain zuzen ere 1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea kendu zuela buruko gaixotasunen bere zerrendatik. Gaur egun oraindik ere gutxi gora behera lauogei herrialdetan kriminalizatu egiten dute eta horietatik zazpitan heriotza zigorra dago kasu horretan. Horren muturreko adierazpenak izan ez arren, gutariko edozeinek aurki ditzake, oraindik ere, indarkeria eta sufrimendua sorrarazten dituzten egunerokotasunezko adierazpen homofoboak. Horren guztiaren ondorioz, are enfasi gehiago jarri behar da politika publiko proaktiboak eta eraginkorrek antola daitezten, horien birtartez gizarteak ahalik eta lasterren egin dezan normalizazioaren bidea eta haur eta nerabe homosexual eta transexualen oinarrizko eskubideen bermearren bidea.

* * * *

Egokia da txosten honetan jasotzea lehen aipatutako nerabe homosexual eta transexualei buruzko Foroko alderdi eta ondorio adierazgarrienak.

Bereizkeria eta ezagutza falta orokorra. Bi hitz horiek izan ziren gehien erabili zirenak Foroan, *lgtb* nerabe eta gazteen errealitatea deskribatzeko. Ez dute bakarrik Euskadiren edo Espainiaren egunerokoa islatzen, baizik eta, baita ere, herrialde demokratiko guztietan, neurri handiago edo txikiagoan. Horren aurrean, presazkoa da aniztasun afektibo eta sexualarekiko errespetua lantzen duten eta homofobia deuseztatuko duten programak eta baliabideak jartzea, izan ere, errespetu falta eta homofobia horiek ondorio larriak dakartza *lgtb* gazteen bizitzara. Beharrezkoa da, halaber, Foroan adierazi zenaren arabera, informazio eta prestakuntza gehiago edukitzea, gizarte osoak esku hartzea, zehapenak jartzea sexu joeren eta aniztasunaren gaiko pluraltasuna bermatzeko jartzen diren betebeharrak betetzen ez direnerako, eta abar. Horiek hausnartutako lan lerroetako batzuk besterik ez dira. Lehentasunezko gai bezala azpimarratu egin zen beharrezkoa zela haurtzarotik bertatik heziketa afektibo eta sexuala bultzatzea, bai ikastetxean, bai etxean. Beste era batera esatearren, *lgtb* pertsonak ikasgai edo arlo guztietan eta egunerokotasunaren alderdi guztietan sartu beharko lirake, zeharka. Edonola ere, gazteei zuzendutako hezkuntza oro eskasa bihurtzen da telebista eta Internet bezalako baliabideak erabiltzen ez badira.

Suedian, legeak ikastetxeak behartzen ditu sexu eskubide eta askatasunei buruzko politika proaktiboak edukitzera, eta urtero berrikusten dira. Hori dela eta, ikastetxeak jabetzen dira zehapena jaso dezaketela eta ikasleari kalte-ordaina ordaindu diezaioketela, ikerketa bat egonez gero eta epaileek ongi jardun ez dutela erabakiz gero. Aipatutako herrialde horretan hirurogeiko hamarkadan hasi baziren ere aniztasun sexualarekiko irakaskuntza positiboa bultzatzen, egun *lgtb* nerabeen artean dauden erasoen kopuruak eta beren buruaz beste egiten dutenenak altuak dira oraindik. Hans Ytterberg-entzat, alegia, joera sexualagatiko bereizkeriaren kontra jarduteko ombudsman ohiarentzat, arrazoia ikasgeletan heziketa sexuala jorratzeko duten modua da: *“asko aldatzen da batetik bestera eta irakaslearen mendekoa da”*. Gainera, *“irakasleen prestakuntza oso kaskarra da”*. Herrialde eskandinaviarrean jabetzen dira, Ytterberg-en arabera, egiteko asko dagoela honako helburu hau erabat bermatzen den arte: *lgtb* pertsonak naturaltasunez sartzan ez dituen ikasgairik ez egotea. Naturaltasuna matematiketan ere bai: *“Zergatik ez eman emakumeen bikote baten adibidea eta beren etxearen maileguagatik ordaindu behar duten portzentajea kalkulatu?”*.

Eraso homofobikoen kasuen aurrean, Suedian ere gabeziak antzematen dira politika publikoetan. *“Fokua erasoak jasan duen pertsonaren gainean jartzen da eta hura ikastetxez aldatzen, jazarlearen gainean jardun ordez”*. Hala eta guztiz ere, Ytterberg-ek diotenaren arabera, badirudi jokaera aldaketa bat igartzen ari dela. Ikastetxe batzuek ordaindu behar izandako kalte-ordainei emandako publikitateak eragina eduki du hainbat ikastetxetan. *“Beren plan proaktiboen kalitatearen hobekuntzan eragina eduki du”*.

Heziketa afektibo eta sexuala, oraindik konpontzeko dagoen arazoa

Foroan, gai honi dagokionez dagoen gabezia itzela ikusi ahal izan zen. Hezkuntzaren alorrean aditu den Belen Molinuevok argi eta garbi adierazi zuen: *“Sexu heziketa Espainian ezereza da, eta ez da Institutura arte hasten”*. Iritzi orokorraren arabera, bai ikasleek, bai irakasleek programak eta prestakuntza behar dituzte. *“Irakasleak oso galduta daude”* go-

goratu zuen “Hitz egin dezagun Homosexualitateaz” (HdH) Programaren arduradun den Jose Enrike Brosak. Programa hori Gehitu elkarteak eskaintzen die Gipuzkoako ikastetxeei. *“Homofobiagatiko bullying kasuen aurrean ez dakite norengana jo”*, erantsi zuen.

Foroan parte hartu zuten adituen aho bateko iritziaren arabera, programa afektibo eta sexual onak eskaintzeko beharrezkoa da zeharkakotasunaren aukerari heltzea, hau da, *lgtb* aldagaia ikasgai edo arlo guztietan sartzea. *“Guztia harrapatu behar du; bestela, ez du ez sakontasunik, ez ibilbiderik edukiko”* zioen haietako batek. Beste batentzat, gaia *“ezin da irakaslearen borondate onaren mendeko izan”*.

Beste hezitzaile batek iritzi hau zuen: *“Heziketa afektibo eta sexuala guztion eskuetan utziz gero, azkenean ez du inork jorratuko”*. Argi dago heziketa afektibo eta sexualak presakuntza handia behar duela irakasleen partetik, eta irakasleak ez direla ausartzen ikuspen eta kontzientziazio programekin ikastetxeetara joaten diren *lgtb* elkarteetako kideen tokia hartzera. Horregatik, mendetasun egoeran dauden irakasle izaten jarraituko dute. Argi geratu zen beharrezkoa zela oraindik ere *lgtb* elkarteek gai honetan laguntzen jarraitzea, beren ezagutzak eta esperientziak eskainiz ikastetxeetan.

Berriro ere eskola zaharra aldatzeko ideia azpimarratu behar da, irakasleak esku harraraziz ikasleekin hitz egin dezaten eta ulermeneko eremuak lortu ditzaten. Alderdi hori funtsezkoa da EDEX Fundazioko Roberto Floresentzat –haurren arloan aditua–: *“Azken batean, irakaslea da azken hitza duena”*. Lan nekeza bihurtzen da honakoa ikasleek burua hedabideetan dutenean eta ikastetxean gorputza besterik ez dutenean.

Premiazkoak diren jarduera batzuk

Foroan, berehala egin beharko liratekeen jarduera proposamen batzuk jarri ziren mahai gainean.

- Ekintza planen, hitzaldien, azterlanen eta baliabideen beharra, horietan *lgtb* aldagaia aintzat hartuta. Zehazkiago, Hezkuntza-administrazioak Berdintasun plan bat eduki beharko luke gazte homosexual eta transexualentzat eta homofobia deuseztatzeko, eta, halaber, ikastetxe guztietan planak onesten eta horien gaineko jarraipena egiten dela bultzatu beharko luke.
- Hezkuntza-administrazioak, halaber, bermatu egin beharko luke ikastetxe guztietan ipuinak eta gida didaktikoak egongo direla, horietan aniztasun sexuala eta familiarak islatuz. Halaber, tutoretza orduetan horiek erabili beharko lirateke, berdintasun planetan xedatutakoari jarraiki.
- Ikastetxeetan irisgarritasun handiagoa egon behar da informazio afektibo eta sexuala barreiatzeko (programak, hitzaldiak...) eta gazteen eta, batez ere, *lgtb*-en bizitza eta pentsamendu afektibo-sexuala ezagutzea ahalbidetuko duten azterlanak egiteko.

- “Beste maskulinitate” baten eraikuntzan lan egitea. Egungo maskulinitateak maskulinitate matxista zaharraren hondarrak eta arrastoak ditu oraindik. Bertan, indarkeriaren erabilerari heltzea eta homosexualitatea, bisexualitatea edo gizonzkoen paperari jarri zaizkion erduei zorrozki erantzuten ez dieten nortasun eta portaerak biziki gutxiatea berezko elementu dira maskulinitate hori eraikitzerakoan.
- Diru publikoa eskuratzen duten enpresei sexu joeragatiko eta genero nortasunagatiko bereizkeriaren aurka borrokatzeko programa bat eskatzea, eta diruz lagundutako taldeei bereizkeriaren aurkako jarrerari berariazko aipamena egitea eskatzea beren estatutuetan.
- Hezkuntzara zuzendutako material guztietan aniztasuna ikusgarri bihurtzea: joera sexualen eta genero nortasunen aniztasuna, sexu berdineko bikoteak nahiz guraso bakarreko familiak.
- Erreferentziako irakasleak jartzea (orientatzaileak edota tutoreak), *lgtb* nerabeak orientatzeko eta laguntzeko, eta aniztasun afektibo eta sexuala zaintzeko.
- Suedian arrakastatsua izan den lan metodo bat aplikatzea: *lgtb* nerabeen segurtasunaren babesean eta haien eskubideen zaintzan eraginen bat izan dezaketen gizarteko agente guztiak identifikatzea (irakasleak, astialdiko begiraleak edo kirol jardueretakoak, guraso elkarteak, hezkuntza-administrazioa, ikastetxeetako zuzendaritzak, gizarte zerbitzuak, irakasleen sindikatuak, ikastetxeetako enpresaburuak, lanbide heziketako zentroak, hedabideak, argitaletxeak, bideojokoen ekoizleak, fiskaltzak eta epaileak, polizia, eta abar), eta bakoitzaren erantzukizun esparrua finkatzea. Haiekin eseri eta, *lgtb* taldeek egindako ekarpenekin batera, garatu beharreko ekintza planak zehaztu.
- Elkarte eta erakundeek esparru egokiak ematea eta horietan egiazko informazioa eta informazio segurua eskaintzea Sarean: web orrialde batzuetan elementu homofobikoak daude, eta homosexualei eta transexualei berariaz zuzendutako horietan informazio interesgarria falta da askotan *lgtb* nerabeen garapenerako eta babeserako.

Transexualitatea, baztertuak baztertuen artean

Transexualitatearen gainean dagoen **ezagutza falta** handia azpimarratzen da, eta, ondorioz, baita haren **gutxiespena** ere. Foroan bat etorri ziren diagnostikoan, eta hurrengoak bezalako baieztapenak errepikatu ziren: *“Gazteei gutxiespen handiagoa sorrarazten diete transexualek homosexualek baino”, “Ezezagun handiak dira”, “Haien inguruko guztiak morboa du”, “Gutxiespena ikaragarria da”...* Geletan bildutako ezagutza enpirikoak, hain zuzen ere Belen Molinuevo antropologoak eta HdH programaren arduradun den Jose Enrike Bro-sak emandakoa, egiaztatu egiten ditu baieztapen horiek.

Ondorio modura

Gaur egun gizartean nagusi diren arau eta balioei dagokienez, sexuaren eta afektibitatearen joera homosexualak eta bisexualak, edota identitate transexuala edo transgeneroa ez daude behar bezala onartuta, eta ez dira normaltasunaren mailara iristen. Horren harira, nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexual askok haien autoestimurako, haien garapen pertsonalerako eta arazorik gabeko sozializatorako kaltegarriak diren egoerak jasane behar izaten dituzte. Gainera, bere horretan diraute gorroto, gaitzespen eta beldurrean oinarritzen diren homosexualitatearekiko eta transexualitatearekiko ideia eta jokabideek. Horiek ahozko eta fisikoki egindako irain bihurtzen dira izaera homofobiko edo transfobikoa duten jazarpen edo *bullying* egoeretan. Adierazitako egoerak jazotzen ez badira ere, nerabe eta gazte *lgtb* askok onarpen eza erakusten duten jarrera edo ideiak jasaten dituzte, edo argi eta garbi adierazitako baztertzeara ere beraien familiaren baitan, lagun edo gelakideekin, kirol ekintzetan edo aisialdiko ekintzetan.

Beharrezkoa da horrek guztiak sozializazioan nahiz garapen pertsonalean eragiten dituen ondorioei heltzea. Era berean, askatasunaren, duintasunaren, osotasun fisiko eta moralaren, berdintasunaren eta norberaren nortasuna askatasunez garatzearen oinarritzko eskubideak baliatzean horrek guztiak zein ondorio dakartzan aztertu beharko litzateke. Aldi berean, aurkeztu diren gaiekin lotura duten politika publikoak aztertu nahi dira eta jada martxan diren politikak hobetu eta berriak ekarriko dituzten proposamenak bideratu.

Aipatutako Foroan, argi geratu zen beharrezkoa zela ikerketa bultzatzea eta ikerketa horrek datu alderatuak ematea planteatutako arazoan neurriaren gainean eta prebentzio programak ebaluatzea ahalbidetzea. Programa horietan, heziketa afektibo eta sexuala zeharkako ikuspuntutik emateko dagoen beharra nabarmendu zen. Era berean, administrazioen, *lgtb* elkarteen, komunikabideen, eta, oro har, eragile sozial eta kultural guztien lankidetzaren garrantzitsua den azpimarratu da, eta, arreta berezia jarri da Interneten, gazte eta nerabeengandik oso gertu baitago. Pentsamoldea eta kultura aldatzeko erronka handia dugu aurrean, eta, aldaketa horren baitan, dibertsitate sexuala eguneroko arlo guztietan normaltasunez islatu beharko litzateke eta ez litzateke bazterkeriarik onartu beharko. Hori bereziki transexualekin zaindu behar da, ezezagun handiak baitira eta ezberdintasunaren aurkako borrokan ahaztutako kolektiboa izan baita.

Laburpen modura, etorkizuneko proposamen nagusi bezala definitu daitezke hurrengo biak:

1. Joera sexual ezberdineko gazteek haien duintasuna, eta osotasun fisiko nahiz moralara, haien nortasuna libreki garatzeko eskubidea, askatasun eskubidea, laburbilduz, tratu berdina izateko eskubidea babestuta izan dezaten baldintzak sortzen laguntzen duten politika publikoak gaitzea behar-beharrezkoa da.
2. Beharrezkoa da indarkeria homofobikoa eta transfobikoa prebenitzeko protokoloak bultzatzea, eta arreta berezia jarri behar da irakasleen eta ikasleen trebakuntza eta heziketan.

Protokoloen aplikazioaren gainean orain arte egindako jarraipenak (txosten honen 3.11 atalean laburtuak) hezkuntzako ikuskaritzak kasu honetan eskuratu, bildu eta jasotako datuek aurkezten dituzten mugak nabarmentzen ditu.

Beraz, protokolo hauen aplikazioaren gaineko jarraipena hobetzeak beharrezkoa ematen du, ez soilik aplikatu diren kasuetako datuen bilketa sistematikoaren bitartez, ezpada horietan parte hartu duten pertsonen egindako erabilgarritasunaren balioespenaren bitartez, horrek berrazterketa erraztuko bailuke.

Ildo berean, *bullyinga* bezalako fenomeno jakin batzuen bilakaera hobeto ezagutzeko eta jarraipen elementu gisa, interes handikoa da IVEI-ISEIk aldian-aldian ematen dituen datu-sorta eta ikerketez baliatu ahal izatea (*Berdinen arteko tratu txarra Euskadin*, 2005, 2008 eta 2010).

3. *Lgtb* adingabeen eta dibertsitate sexualaren defentsa eta babesari dagokienez

42. Dibertsitate afektibo-sexualari buruzko Plan bat egitea hezkuntza-zentroetan ume eta nerabe homosexual, bisexual edo transexualen oinarrizko eskubideak eta babesari bermatzeko

Genero-identitate edo sexu orientazio ezberdineko adingabeentzako baldintza egokiak sortzeko politika publikoak ezartzeko beharra nabarmena da, adingabeek euren duintasuna eta integritate fisiko eta moralerako, pertsonalitatearen garapen askerako, askatasunerako eta, finean, tratu berdintasunerako oinarrizko eskubideak babestuta ikus ditzaten.

Horretarako, balioen hezkuntzaren esparruan, beharrezkoa da dibertsitate afektibo-sexualarekin zerikusia duen oro jorratzea, arlo honetako dibertsitatearen inguruko bisibilizazioa eta sentsibilizazioa sustatzeko helburu bikoitzarekin; era berean, beharrezkoa da honakoak babestea: duintasuna, pertsonalitatearen garapen askea, integritate fisiko eta morala eta ume eta nerabe homosexual (gay eta lesbianen) edo bisexualen berdintasunerako, baita identitate transexual edo transgeneroari dagokienez ere.

Plan hori zentro bakoitzak espezifikoki egindako planek osatu beharko lukete; zentro bakoitzak zehaztu beharko lituzke zer ekintza zehatz egingo dituen *lgtb* eskubideen arloan, edo, bestela, aurreikuspen horiek beste berdintasun plan batzuei gehitu beharko litzaizkieke, bestelako bazterketa kausei buruz zentroek egindakoekin, hain zuzen ere (sexua, erlijioa, jatorria, gizartea, etab.).

43. Eskola esparruan ekintza zehatzak sustatzea dibertsitate afektibo-sexuala ikusarazteko eta bermatzeko, homofobia erazteko eta umezarotik genero-identitatearen eta sexu-orientazioaren dibertsitatea erabat onartzeko eta errespetuzko kultura herritarra zabalitzeko

Aurreko gomendioan aipatutako planek *lgtb* (lesbianak, gayak, transexualak eta bisexualak) adingabeen aurkako hitzezko oldarkeria eta indarkeria fisikoa eraztearen gaia jorratu be-

3. **LGTBei arreta emateko Arartekoaren arloa 2010. urtean.**
Arartekoak Eusko Legebiltzarrari 2010. urteaz egindako txostenaren laburpena.

**EUSKO
LEGE BILTZARRAREN
TXOSTENA
2010**



9. LESBIANA, GAY, BISEXUAL, TRANSGENERO ETA TRANSEXUALAK

I. Aurrekariak



Arartekoa erakundeak arlo honetan egiten duen lana pertsona lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta transexualen eskubideak babestera dago zuzenduta; horretarako, 2010. urtean, zenbait jarduera egin ditugu helburuak honakoak izanda:

- euskal herri-administrazioek euren jarduera osoan sexu joera eta genero nortasunagatiko berdintasunarentzako eta bereizkeriarik ezarentzako erabateko begirunea txerta dezatela lortzea.
- euskal gizarte osoan, sexu joerari eta genero nortasunari dagokienez, aniztasuna baztertu gabe erabat errespetatzen duen kultura sustatzea.
- homofobia eta transfobia modu ororen aurka borrokatzea, Euskadin pertsona homosexualak, transexualek edo transgeneroek bizi duten egoeraren ezagupena zabalduz.

2010ean arlo horri lotutako kexa guztiak erakunde honen beste lan arlo materialetatik datozen, arlo horiei zegozkien kontuen esparruan agertu baitira; hori dela-eta, ez dugu aipatuko arlo horretako kexa kopururik. Talde horren eskubideak erabat txertatzeari dagokionez eta, batez ere, familia homoparentalei dagokionez, euskal administrazioen lanaren hobekuntza bultzatzen ahalegindu ez ezik, 2010ean gure jarduera nagusia LGBT pertsona taldearen eskubideak baztertu gabe errespetatzen dituen kultura hedatzea izan da.

II. Arau eta gizarte testuingurua

Azken urteotan talde horri dagokion esparru juridikoa erreformatu egin da pertsona horien eskubide zibilen erabateko parekatzea ezartzeko, bai sexu bereko pertsonak ezkontzeko aukerari, bai pertsona transexual edo transgeneroek euren genero nortasuna sentitzen duten sexura legez egokitzeko gaitasunari dagokionez. Hala, Euskal Herrian lehenengo izatezko bikoteak arautzeko [maiztasaren 7ko 2/2003 Legea](#) izen zen, ondoren [Kode Zibila-ren](#) erreforma, [uztailaren 1eko 13/2005 Legearen](#) bidez egina, zeinek ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen baitu, eta azkenik [martxoaren 15eko 3/2007 Legea](#), zeinek pertsonen sexuari buruzko erregistroko aipamena zuzentzea arautzen baitu; hortaz, arau horiek LGBT kolektiboaren eskubide eredu berria ezartzeko lege oinarria bihurtu dira. Hala eta guztiz ere, zentzuzko denbora igaro arren, aipatu erreformek aplikatzeko hutsuneak eta gabeziak daukate, batez ere erregistroko kontuei dagokienez, bai legezko sexu aldaketari dagokionez, bai bikote homosexualen seme-alabak Erregistro Zibilean erregistratzeari dagokionez. Jarraian azalduko dugunez, gai horiek herri-administrazioak kontrolatzeko burutzen ditugun jarduketan zati handi bat hartu dute; hala ere, gai horiei

buruz egin ditugun jarduketak, funtsean, baina ez bakarrik, [Espainiako herriaren defentsariaren](#) erakundeak gai horietan esku har dezala eskatzeko izan dira, gai horiek estatu eskumenari atxikita baitaude.

Halaber, arlo horri dagokionez aipatu behar dugu, 2010ean EAEn egondako berrikuntzarik azpimarragarriena honakoa izan dela: Euskal osasun-sistemak bere egin du pertsona transexualentzako osasun laguntza osoa, hots, sexua berrezartzeko kirurgia biltzen duena ere bai; lehenago, hura ez zen [Osakidetzaren](#) osasun prestazioetan sartzen, eta egun [Gurutzetako Ospitalean](#) xede horrekin sortutako unitate espezializatuak ematen du. Zalantza barik, hori aurrerapen handia izan da Euskadiko pertsona transexualentzat, sexua aldatzeko ebakuntza horiek egiteko ez baitute EAetik kanpo joan behar. Hala ere, aurrerago, osasun arretari eta osasun prestazioei dagokienez, pertsona transexualen zenbait taldek helarazi dizkiguten aldarrikapenak ere aipatuko ditugu.

Egun, Eusko Jaurlaritzako [Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzak](#) betetzen ditu, [Gizarte eta Enplegu Gaietako Sailaren](#) baitan, LGBT kolektiboari lotutako gobernu eginkizunak. Orain Zuzendaritza horri atxikita dago [Berdindu](#), Gay, Lesbiana eta Transexualentzako Zerbitzua. Bestalde, jaurlaritzaren barruko eginkizun horien egituraketa berriari dagokionez ere zenbait aldaketa egon dira, jaurlaritza barruko antolakuntza aldaketa hutsak diren heinean, ordea, orain arte ez dugu ikusi kanpoko irismen aipagarria izan dutenik.

Era berean, 2010ean arlo horretan egindako lana bere testuinguruan kokatu behar da. Horretarako, batez ere LGBT eskubideen alde lan egiten duten taldeen salaketei eta, neurri txikiagoan, erakundeak jaso dugun salaketa batzuei esker antzemandako arazoak aipatu behar ditugu. Arazo horien jatorria, funtsean, administrazioa lege errealitate berria aintzat hartzeko egokitu beharrean dago. Izan ere, errealitate berri hori 2005. urtekoa izan arren, ikusi dugunez erabat aplikagarria izateko egokitzapenak egin behar dira oraindik.

Azkenik, Arartekoa erakundeak sinetsita gaude pertsona homosexual eta transexualen eskubideen aldeko kultura gizartean hedatzeko eta barneratzeko derrigorrez heldu behar zaiola haurtzarotik errealitate horren kontzientzia duen hezkuntza irmotasunez garatzeari, eta, halaber, haur, nerabe eta gazteei laguntza berezia eman behar zaiela, egun bestelako joera sexualak edo genero nortasunak gizarteratzeko oraindik dakartzaten bereizkeria edo arazoak paira ditzaketen neurrian. Hala, hezkuntza gure ahaleginak pilotatzeko lan eremua dugu, batez ere datorren urteaz gozotik, eta horretarako xede horretara zuzendutako proiektuetan murgilduta gaude dagoeneko, jarraian azalduko dugunez.

III. Jarduera-plana

2010. urterako egindako jarduketa planaren esparruan, jarraian arloan burututako jarduketa nagusiak aipatuko ditugu, berehala emango ditugun epigrafeen arabera. Arlo horretan burututako jarduketa aipagarrienen aipua dela-eta, 2010an Arartekoak LGBT pertsonen eskubideak defendatzeari dagokionez izan dituen arreta gunen nagusiak azpimarratuko ditugu:

III.1. Bilerak elkarrekin

- **Bilerak LGBT eskubideen aldeko elkarrekin**

LGBT pertsonen eskubideen alde lan egiten duten honako erakundeekin izan ditugu bilerak edo harremanak: [Gehitu](#), [Aldarte](#) eta [FELGTB](#). Elkarrekin horiekin landutako gaietatik bi azpimarratuko ditugu, une honetan gure erakundeak daukan lanean garrantzitsuenak deritzegulako:

- herri-administrazioei, bikote homosexuali seme-alabak dauzkaten familiak osatzeko eskubidea onartzen duen lege errealitatera erabat, baita alderdi formaletan ere, egokitzeko eskatu beharra
- adingabeei euren sexu joera eta genero nortasuna askatasunez eta erabat garatzeko babesa emateko estrategiari heltzeko garrantzia

Lehenengo kontuari dagokionez, eremu horretan antzemandako arazoak konpontzen ahalgintzeko gomendio orokor bat egin dugu; gai horri buruzko [atal honetako III.4. epigrafean](#) emango dugu haren berri. Adingabeen kontuari dagokionez, aurreratu dugunez, erakunde hau, lortutako zenbait informazio eta Arartekoak 2009an egindako **“Adingabekoei balioak transmititzea”** izeneko txosten bereziko emaitzak ikusita, bestelako sexu joera edo genero nortasuna duten haurrak, nerabeak eta gazteak erabat garatzearen aldeko hezkuntzaren esparruan eta, orokorrean, haurtzarotik LGBT pertsonen eskubideak erabat errespetatzen eta gizarteratzen duen herritar kultura eratu ahal izateko, irmotasunez lan egin beharriari heltzeko premia jabetu da. Jarraian, eremu horrexerri dagokionez lantzen ari garen proiektuak ere aipatuko ditugu.

- **Bilerak pertsona transexual eta transgeneroen eskubideen aldeko elkarrekin**

2010ean zenbait bilera edo harreman izan ditugu pertsona transexualen eskubideen alde lan egiten duten honako elkarrekin: [Transexualidad Euskadi](#); [Errespetuz](#); eta [Trans nortasunen despatologizazioaren aldeko espainiar estatuko sarea](#).

Elkarrekin horiekin landutako gaien artean honakoei deritzegu garrantzitsuenak: pertsona transexualen arazoak jasotzen duten osasun arretari dagokionez: desadostasuna sexuari buruzko aipamena erregistroan zuzentzeko legeak xedatutako lege betekizunekin; pertsona transexuali arretoa osoa emateko legediaren edo araudiaren premia: legedi edo araudi horrek, osasun arazotik eta legezko nortasunaren ikuspegi zorrotzetik harago, haien bizitzako beste esparru eta alderdi batzuk ere era zabalagoan hartu beharko ditu aintzat; haien datu pertsonalak eta historia klinikoak babesteari lotutako arazoak; bereizkeriaren aurkako legediaren komenigarritasuna: legedi horrek pertsona transexual eta transgeneroen aurkako bereizketa desagerrarazteko berariazko tresnak eduki beharko ditu.

Egun gai horiei lotutako zenbait ekimen daude, esaterako, orokorrean bereizkeriarik ezari dagokionez, [Tratu berdintasunerako eta bereizkeriarik ezerako Lege Integralaren Estatuko](#)

[aurreproiektua](#), eta ildo bereko zenbait autonomia esperientzia, pertsona transexualei berriaz lotuta (zentzu horretan, ikus, Nafarroan, genero nortasunagatik ez baztertzeari eta pertsona transexualen eskubideak onartzeari buruzko [azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea](#)). Gure ustez azken hori erreferentea izan daiteke Euskadira; izan ere, interesgarria izan daiteke bertan, pertsona transexualen eskubideak arlo guztietan erabat errespetatzen direla eta haien premiei erabateko arreta ematen zaiela bermatzeko, mota horretako neurrien komenigarritasunari buruzko hausnarketari ekitea.

III.2. *Bilerak administrazio eta erakundeekin*

- **Bilera Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzarekin**

Bilera bat izan dugu zuzendaritza horrekin. Bertan, pertsona LGBTei buruz dauzkaten eginkizunak eta proiektuak azaldu dizkigute eta guk zenbait administrazio egoera zuzendu beharra helarazi diogu, egun oraindik ez dutelako familia homoparentalen eta haien seme-alaben errealitate legala jasotzen. Azken gai horri dagokionez, zuzendaritzari iragarri genion gomendio orokor bat emateko asmoa geneukala. Gomendioa azkenean 2010eko abenduan eman zen eta jarraian aipatuko dugu. Edonola ere, harreman arina izatea adostu dugu eta zuzendaritzak Arartekoa erakundearekin lankidetzan jardutearen aldeko jarrera argia daukela sumatu dugu. Gai batzuk lantzeke gelditu dira, hala nola joan den 2009an [“Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin”](#) izenburupean egin genuen txostenak dakartzan gomendioak gauzatzea. Horri buruz [atal honetako III.3. epigrafean](#) hitz egingo dugu

III.3. *Gomendioen jarraipena eta txosten berezia*

- Hasteko, epigrafe honetan **joan den 2009an Donostiako Udalari, hiriko kirol instalakuntza guztiek euren aldageletan banakako dutxak eta aldagelak edukitzea lortzeko xedez, kiroldegietan aldagelak egokitzeko premiari buruz egindako gomendioa** aipatu behar dugu. Helburua, edozein arrazoiengatik, beste pertsonen begien aurrean egon gabe intimitate nahikoz aldatu eta dutxatu nahi duen pertsona orok –eta hala gertatu ohi zaie aldaketa prozesua bukatu gabe duten pertsona transexualei– aukera hori izatea da ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 19koa](#)). Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio kirol ekipamenduetan esku har dezala, zentzuzko denbora tartean, udalerriko kirol instalazio guztiek banakako dutxak eta aldagelak izan ditzaten). Ebazpen hori betetzen eta onartzen den egiaztatzeko egindako jarraipenetik, ondorioztatu dugu udal horrek ez duela gure gomendioa bultzatu. Hala ere, Euskadin hori gertatzen den toki bakarra ez denez gero, 2010ean ebazpen horren zentzu bereko gomendio orokor bat emateko aukera aztertzen ari gara.
- **2009an “Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin” izenburupean egindako txosten bereziari** dagokionez, pentsatu dugu 2010 honetan erakunde honek hari dagokionez egin beharreko lanak batez ere edukia ezagutarazteari heldu behar

ziola, gizarte osoan hedatzen ahaleginduz. Horretarako, zenbait hitzaldi eman eta txostenaren aurkezpenak egin ditugu pertsona transexualen eskubideen alde lan egiten duten elkarteen. Bestalde, txostena 2009. urteko amai aldera egin zelan kontuan hartuta, pentsatu genuen goizegi zela herri-administrazioei bertan gomendatutako zenbait neurri gauzatu zitzatela eskatzeko, lehenbizi ezagutzeko eta barneratzeke eta ondoren gauzatzeko denbora behar baitute. Zentzu horretan, uste dugu neurri batzuk gauzatzeko eskatu aurretik talde horren eskubideak bultzatzeko gure lanari ekin behar diogula, gure proposamenak ezagutaraziz eta haien komenigarritasunaz konbentzitzen, herri-botereak haren bidez ezarri ditugun helburuei atxikitzea lortzeko helburuz. 2010. urtea bukatutakoan, uste dugu administrazioei txosten horrek dakartzan gomendioek proposatutako zentzuan eskaera zehatzagoak egiten hasi ahal dela. Hori dela-eta, 2011n haiei jarraipen zehatzagoa egiten hasiko gara.

III.4. Gomendio orokor berrien aipamena

Arestian aurreratu dugunez, 2010 honetan, LGBT eskubideen eremuan lan egiten duten zenbait talde eta elkarteek –testinguru horretan, bereziki Aldarte taldea aipatu behar dugu– erakunde honi egindako salaketa baieztatu ahal izan dugu. Horren berri eman genuen [erakunde honen 2009ko urteko txosteneko](#) II. kapituluko 9. atalean. Haren bidez, agerian utzi zen familia homoparentalei eta bikote eta ezkontide homosexualiei eragiten dieten zenbait administrazio oztopok dirauela.

Arrazoi horregatik eman dugu [Arartekoaren abenduaren 23ko 4/2010 gomendio orokorra](#), familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzeari buruzkoa. Bertan gai biri heldu zaie:

- **Administrazio oztopo formalak deuseztatzea**

Alde batetik, sumatu dugunez familia homoparentalei eta bikote eta ezkontide homosexualiei dagokienez oraindik dirauten zenbait oztopo formal zuzentzea lortu nahi du gomendioak. Batez ere **errealitate sozial eta juridiko berrira egokitu ez dituen eruedetan oinarritutako inprimakiak betetzeari** dagozkio.

Gure ustez ezinbestekoa da administrazioen inertziak bukatzea eta bikotea edo familia homoparentala osatu duten pertsona homosexualentzat justifikaziorik gabeko zailtasunak ekar diezazkieketen egoera guztiak berraztertzea. Oztopo formal horien jatorria oso sakabanatuta dagoenez –izan ere, zenbait administrazio maila, erakunde eta euskal herri-administrazioetatik, zerbitzu edo prestazio publikoak kudeatzen dituzten bestelako erakundetatik edo egiten duten jarduera burutzeko administrazioen baimena behar duten erakundetatik datoz–, erabaki dugu komenigarria dela arazoari batera heltzea.

Hori dela-eta, euskal herri-administrazio guztiak deitzen ditugu **izatezko bikote eta ezkontide homosexualiei eta seme-alabak dauzkaten familia homoparentalei eragiten**

dieten inprimakiak edo beste edozein agiri formalki egokitzera, bikote, ezkontide edo familia horien errealitate pertsonalari berdintasunean erabateko lekua egingo dien formula sartuz. Halaber, euskal herri-administrazioei eskatzen diegu edozein zentro edo erakunderi jokabide bera eskatzeko, haien eskumeneko zerbitzu edo prestazioak kudeatzen badituzte edo jarduera baimendu behar badiete.

- **Emakume biren arteko ezkontzen baitan lagunduriko ugalketaren ondoriozko seme-alabatasuna legez ezartzeko arazoak**

Bestalde, emakumeen arteko ezkontzek daukaten legezko egoera anbigua baietsi dugu, ezkontza horien baitan lagunduriko ugalketako tekniken bidez jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna ama biologikoaren emaztearen alde ezartzeari dagokionez. Anbigutasun hori dela-eta, kasu batzuetan gerta daiteke emakume bien arteko ezkontzaren baitan teknika horien bidez jaiotako seme-alaben ama ez biologikoei amatasun hori legez ez onartzea, adopzio prozesura joz ez bada. Prozesu horri seme-alaba jaio ondoren ekin behar zaio eta denboraren batere premiarik gabe luzatzen du ama ez biologikoari dagokion seme-alabatasuna legez onartzea. Arazo horren jatorria lagunduriko ugalketari buruzko [maiatzaren 26ko 14/2006](#) Legeko 7. artikuluaeren letran badago ere, pentsatu dugu Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak, kasu horietan, adopzio prozesura jo beharra saihestuko duen legeari buruzko informazioa heda dezakeela.

Horregatik, gomendioetako bat, berariaz, [Eusko Jaurlaritzari](#) zuzendu diogu. Hola, lagunduriko ugalketako teknikak burutzen dituzten osasun zentroetan batez ere teknika horien bidez seme-alaba izan nahi duten ezkontide lesbianeiei eragiten dien legeari buruzko informazioa hedatzea nahi dugu. Zehazki, uste dugu komeni dela jakinaraztea, jaiotzeko unean adopzio prozesura jo gabe amatasuna erabaki ahal izateko, erditu aurretik, ama biologikoaren emakume ezkontideak dagokion erregistro zibilean agertu behar duela erregistro zibileko epaile arduradunari formalki adierazteko jaio berriaren seme-alabatasuna onartu nahi duela.

III.5. Arlotik bultzatutako ofiziozko jarduketak

Emakume biren arteko ezkontzan lagunduriko ugalketaren bidez jaiotako seme-alabaren seme-alabatasuna ama ez biologikoaren alde erabakitzeari buruzko arazoari dagokionez, hain zuzen ere, lagunduriko ugalketari buruzko [maiatzaren 26ko 14/2006 Legean](#) gai horren legezko eraketaren anbigutasuna dela-eta, komenigarria iritzi diogu erregistroetako egungo praktikak berraztertzea sustatzen duen jarduketa bat bultzatzeari, ez direlako beti berdinak eta, gure iritziz, kasu batzuetan emakume bik osatutako ezkontzentzat bereizkeria sortzen ari direlako.

Hala ere, arazo horren azken funtsa legearen anbigutasunean dagoenez, beti berdinak ez diren erregistroen interpretazioa eta praktika eraginez, eta erakunde honek Estatuaren eskumenekoa den gai horretan esku hartzeko legezko eskumenik ez daukanez, antzemandako arazo orokorra [Espainiako herriaren defentsariari](#) helaraztea erabaki dugu, hark ekiteko

lege interpretazioa argitu ahal izateko egoki deritzen jarduketak, erregistro zibilen jarduketek, aipatu inguruabarretan jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna erregistratzeari dagokionez, konstituzioko berdintasun printzipioarekin erabat bat datorren erregistroko praktika homogeneoa bermatzen dutela ziurtatzeko edo, bestela, gure iritziz garrantzi konstituzionala izan dezakeen arazoa konpontzeko irtenbide egokiak bila ditzan.

III.6. Arlo horretan giza eskubideak bultzatzeko foro, jardunaldi eta jarduketetako parte hartzea

- **Parte hartzea zenbait foro eta jardunalditan**

2010. urtean, Arartekoaren pertsona LGBTentzako arreta arlotik, LGBT eskubideei lotutako jarduerak edo jardunaldietan antolatzen dituzten zenbait forotan hartu dugu parte. Hala, ["Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin"](#) izeneko txosten berezia aurkezteko zenbait solasaldi eman dugu (Donostian, Gehitu elkartearen InfAsis zerbitzuak eta Gaztegehituk antolatutako jardunaldien esparruan); [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) eta [Bilboko Udalak](#) Bilbon antolatutako "Generoak, sexualtasunak eta gorputzak" izeneko jardunaldietan ere parte hartu dugu.

Bestalde, arartekoak berak ere gai horri lotutako honako gertaeretan hartu du parte:

- 2010eko martxoan, Logroñon, [Errioxako Unibertsitateak GYLDA](#) taldearekin eta [Logroñoko Udalarekin](#) batera antolatutako Aniztasun afektibo sexualeko hezkuntzari buruzko I. jardunaldietan parte hartu zuen, *"Aniztasun afektibo sexualaren babes: defentsariaren eginkizuna"* izeneko hitzaldia emanaz. Jardunaldi horien helburua honakoa da: aniztasun afektibo sexualari eta zenbait hezkuntza testuingurutan daukan egoerari buruzko ezagupenak eguneratzea; ikastetxeetan homofobiak egun daukan errealitatea, dakartzan arazoak eta haientzako irtenbideak aztertzea; eta bertaratutako pertsonen aniztasun afektibo sexualak edozein hezkuntza testuingurutan jorratzeko baliabideak eta estrategiak ematea.
- Hil berean [Jaengo Unibertsitatean](#) eta [Kordobako Unibertsitatean](#) demokrazia eta gutxiengo sexualei buruzko hitzaldi bana eman zituen, unibertsitate bietako Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren eta Zuzenbide Konstituzionalaren sailek gonbidatuta, Hans Ytterberg-ekin batera. Hans Ytterberg sexu joeragatiko bereizkeriarako herriaren defentsari suediarra izan zen eta egun gai horri buruzko Europa Kontseiluko Aditu Batzordeko batzordeburua da. Hitzaldi haietan arartekoak joera homosexualen edo nortasun transexualen pertsonen –batez ere nerabeen- giza duintasunerako oinarriko eskubidearen onarpen eta babesaren egoera aztertu zuen, baita adingabeen balio sistemetan pertsona horien duintasunaren aurkako ideiek eta jarrerak irautea ere, Arartekoaren balioen transmisioari buruzko txosten bereziak agertu zuenez.
- 2010eko urrian, Bartzelonan, Bartzelonak LGBT taldearentzako udal planaren aurkezpenan parte hartu eta ["European Rainbow Cities"](#) izeneko homofobiaren aurkako toki

politikei buruzko nazioarteko biltzarrera joan zen. Topaketa horren helburuak honakoak ziren: Europar Batasuneko homofobia eta transfobiari buruzko diagnostikoa egitea, homofobia eta transfobiaren aurkako tokiko politika publikoak hedatzea, homofobiaren aurkako tokiko politika publikoen erronka nagusiak identifikatzea eta toki administrazioen, adituen eta lesbiana, gay, trans eta bisexual (LGBT) elkarten artean homofobia eta transfobiaren aurkako politika publikoei buruzko elkarrizketa sustatzea.

- 2010eko abenduan, Buenos Airesen, Federación Argentina de lesbianas, gays, bisexuales y transexuales-ek (FALGBT) antolatutako Elkarrizketa irekia: LGBT politika publikorantz Argentinan ekimenean parte hartu zuen. Elkarrizketa irekia foro bat da eta bertan lesbianek, gayek, bisexualek eta transexualek pairatzen duten bereizkeria gainditu ahal izateko politika publikoen inguruko ekimenei buruzko esperientziak partekatzen dira.

- **Eskubideak sustatzeko beste jarduketa batzuk**

Halaber azpimarratu nahi dugu [Europar Batasunak](#) onartu eta hautatutako proiektu batean parte hartu duela Arartekoa erakundeak; proiektu horren xedea haur, nerabe eta gazteen artean Europan homofobiaren aurka borrokatzeko eta homosexualen eskubideak erabat errespetatzen eta onartzen dituen kultura bultzatzeko testuak eta ikus-entzunezko materialak sortzea eta hedatzea da. Proiektuak Rainbow dauka izena (ingelesez proiektuaren zentzuaren siglak biltzen ditu: Rights Against INTolerance: Building an Open-minded World/Intolerantziaren aurkako eskubideak: buru irekiko mundua eraikitzen) eta bertan Europako 7 herritako (Alemania, Belgika, Bulgaria, Espainia, Holanda, Itaila eta Erresuma Batua) hamar erakunde publiko eta pribatuk hartzen dute parte. 2010. urtean erakunde parte hartzaileekin batera proiektu horren oinarriak prestatu ditugu [Europar Batzordeak](#) (Justizia, Askatasun eta Segurtasunaren Zuzendaritzako Funtsezko Eskubideen eta Herritarren Zuzendaritza) sustatutako lehiaketa prozesura aurkeztu ahal izateko; azkenean Europar Batzordearen dirulaguntza jasotzeko hautatua izan da proiektua. Proiektua burutzeko epea (urte biko) 2011n hasiko da eta 2012a bukatu arte zabalduko da. Pertsona LGBTentzako arreta arloaren bidez parte hartuko dugu, proiektuaren fase guztietan, eta parte hartze hori Euskadin ere materialak hedatzera bideratuko da; horretarako, materialok gaztelaniara eta euskarara itzuliko ditugu. Erakunde honentzat, proiektuan parte hartzea aukera oso esanguratsua da datorren urteaz geroztik homofobia arbuiatu eta pertsona homosexualak erabat onartu eta errespetatzen dituen kultura adingabe, nerabe eta gazteen artean sustatzera berariaz bideratutako lan biziagoari heldu ahal izateko.

IV. Kexarik aipagarrienak

2010 honetan arlo honi dagozkion kexetan agertutako gaiak pertsona transexualen egoerari eta familia homoparentalei buruzkoak izan dira. Labur, kexa horietan agertutako gai nagusien berri emango dugu:

IV.1. *Pertsona transexualentzako osasun laguntza*

Batez ere euskal osasun sistemak prestazioa eskaini aurretik sexua berrezartzeko kirurgia-gatik izandako gastuak ordaintzeari, egun jasotzen ez diren beste prestazio batzuk sartzeari eta pertsona transexualen osasun historietako datuak babesteari lotuta daude.

- Lehenengo kontuari dagokionez –2009ko urteko txostenean aipatu egin genuen–, uste dugu Eusko Jaurlaritzak behar bezala egin diela aurre **sexua berrezartzeko kirurgia hori egiteko EAetik kanpo joan zirenek sortutako gastuei** Euskadin [Osakidetzak](#) hura eskaintzen ez zuenean. Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren](#) finantzazio hori behin-behinekoa izan da, ebakuntza horiek, aurreko urteetan aurreko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila zenak egiten zuen bezala, zio horregatik izandako gastuak diruz laguntzeko deialdia sortuko zelakoan egin zituztenei agertutako arazoa konpontzeko.
- Egun jasotzen ez diren prestazioei, hala nola pertsona **transexualen aldaketa prozesuaren bigarren mailako ezaugarriei eragiten dietenei** –esaterako, gorputz atal batzuen depilazioa edo kirurgia estetikoak– dagokienez, gure ustez egun eskaintzen den prestazioak aldaketa prozesuaren oinarrikoena estaltzen du, baina hala ere, etorkizunean eta neurri horiek altxor publikoari ekar diezaioketen proportzionaltasun ekonomikoaren printzipioa errespetatuz, beste prestazio horiek zamari heltzeko aukera aztertu behar litzateke, prestazio zuzenaren bidez izan, edo laguntza horien premia bermatzen duten betekizun ekonomiko batzuk betetzen dituzten pertsona transexualentzat jar litezkeen laguntzen bidez izan. Edonola ere, gure aburuz, pertsona horientzako arreta osoari buruzko etorkizuneko araudiaren esparru zabalagoan heldu beharko litzaioke horri.
- Azkenik, kasu batean [Osakidetzan](#) agertzen ziren datu pertsonalak aldatzeko eskaera agertu zitzaigun, pertsona horren historia klinikoan agertzen ziren datu guztiak pertsona horren sexu eta nortasun datuen aldaketara, erregistro zibilean zuzendu ziren bezala, egokitzeko xedez. Arazoa honakoa zen: Osakidetzarentzat ezinezkoa zen haren nortasun datuen aldaketaren aurreko laguntza jarduerari buruzko datuak aldatzea onartzea, historia klinikoak jasotzen duen ataleko egiazko osasun errealitatea jaso behar delako. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako [Osasun Sailaren](#) erantzunak argitu zuen, azkenean, pertsona horrekin beraren historia klinikoari dagozkion paper-zorroak zaintza berezian, holako egoerentzat baino erabiliko ez den armairu batean, gordeko direla adostu zela; pertsona horrek bezala, agertutako arazoarentzat egokia iritzi diogu irtenbideari.

IV.2. *Erregistro Zibilaren aurreko arazoak sexu bereko ezkontideak erregistratzeari eta ezkontide lesbianen legezko seme-alabatasuna erabakitzeari dagokienez*

Kexa bi azpimarratu nahi ditugu, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen errealitate berrira egokitzea erregistro zibilaren funtzionamenduan sortzen ari den arazoak islatzen dituztelako; izan ere, haien garrantzia erabakigarria izan daiteke pertsonen eskubide zibilentzat:

- Kasu batean ezkonduko emakume bik salaketa jarri zuten euren ezkontza erregistrozterakoan, **A ezkontidearen sexu lehenetsia gizonezkoa izanda, hura ez aldatzeagatik eragindako akatsa zuzendu zedin**. Hola, emakume ezkontideetako bat gizonezko agertzen zen. Akatsari antzeman eta berehala zuzendu zen, baina pertsona horren sexua bazterreko ohar batez zuzenduz, eta horrek ez zuen emakume kaltetua ase. Kexa hori [Espainiako herriaren defentsariari](#) igorri genion, gaia gure eskumenetatik kanpo geratzen zelako. Duela gutxi jakin dugu arazoa konpondu egin dela, [Justizia Ministerioak](#) herri defentsariaren iradokizuna onartu duelako. Haren arabera, [Erregistro Zibilaren Arautegiko](#) 298.4 artikuluan akats formala dagoela aitortu behar da eta, dagokion txosteneko zuzenketa ebazpenean, arautegi horretako 307. artikuluan xedatzen denez, idazpen okerra deuseztatzeko eta, dena erregistroko orrira eramanez, ezkontide biak emakume agertuko diren beste batez ordeztuko agindu. Halaber, jakinarazi digutenez herriaren defentsariak, akatsak zuzendu ahal izateko, erregistro zibilaren informatizazioak ematen dituen aukerak baliatuz, Erregistro Zibilaren Arautegia etorkizunean aldatzeko gomendioa ere eman du. Zentzu horretan, haren euskarria digitala izateak bidea ematen du hura segurtasun juridikoa murriztu gabe aldatzeko, euskarri analogikoarekin ezinezkoa zen moduan. Izan ere, erregistroaren egungo arautegia euskarri analogikoari begira dago pentsatuta.
- Aipatu nahi dugun beste kasua **ezkonduko emakume bik lagunduriko ugalketa tekniken bidez jaiotako haurren ama biologikoaren emazteari zegokion seme-alabatasuna erregistratzeko izan zituzten zailtasunei buruzkoa** izan zen. Arestian xeheago hitz egin dugu kasu horretaz, azkenean herriaren defentsariaren aurrean ofiziozko jarduketari ekitea eta, besteak beste, arazo jakin horri buruz hitz egin zuen gomendio orokorra ematea erabaki genuelako. Dena dela, kasu jakin horretan, azkenean zegokion erregistro zibileko epaile arduradunak semearen semeatasuna beste emakumearen alde erregistratzea onartzea ebatzi zuen, emakumea jaiotatik erregistro zibileko arduradun horren aurrean formalki agertu ez arren. Arazoaren oinarria lagunduriko ugalketa teknikei buruzko [maiatzaren 26ko 14/2006 Legeko](#) 7. artikuluko 3. idatz-zatia interpretatzeko modura birbideratzen da. Gure ustez interpretazio horrek [Konstituzioko](#) 14. artikuluan babestutako berdintasun printzipioaren arabera izan behar du eta ezin du sexu bereko pertsonen bereizkeriarik eragin halako kasuetan. Arazoaren azterketa sakonagoa egiteko [Arartekoaren abenduaren 23ko 4/2010 gomendio orokorrera](#) –familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzeari buruzkoa– jotzen dugu. Haren edukiari atal honetako arestiko III.4 epigrafean ere heldu zaio.

V. Ondorioak

Arlo honetan 2010ean egindako lanaren aipagarriena honakoa izan da:

1. Bultzatzeko lana

Arlo honetako lanaren zati handi batek pertsona LGBTen eskubideak bultzatzeko lanari heldu dio. Pertsona transexualen eskubideen aldeko esparru zehatzagoan zein, modu

orokorrangoan, LGBT taldearen alde lan egiten duten **zenbait elkarterekin izandako bilerak eta harremanetatik**, ondorioztatu dugu egun pertsona horien eskubideen egoera hobetzeko arreta jartzerakoan gune nagusiak honako eremuak direla.

- **Pertsona transexualei eragiten dieten kontuak:**

-jasotzen duten osasun arretari buruzko arazoak; -desadostasuna sexuari buruzko aipamena erregistroan zuzentzeko legeak xedatutako lege betekizunekin; -pertsona transexualei arreta osoa emateko legediaren edo araudiaren premia: legedi edo araudi horrek, osasun arazotik eta legezko nortasunaren ikuspegi zorrotzetik harago, haien bizitzako beste esparru eta alderdi batzuk ere era zabalagoan hartu beharko ditu aintzat; -bereizkeriaren aurkako legediaren komenigarritasuna: legedi horrek pertsona transexual eta transgeneroen aurkako bereizkeria desagerrarazteko berariazko tresnak eduki beharko ditu.

- **Gay eta lesbianen eskubideei eragiten dieten kontuak:**

- herri-administrazioei, bikote homosexuali seme-alabak dauzkaten familiak osatzeko eskubidea onartzen duen lege errealtatera erabat, baita alderdi formaletan ere, egokitzeko eskatu beharra
- hezkuntza eta sentsibilizazio esparruan adingabeei euren sexu joera eta genero nortasuna askatasunez eta erabat garatzeko babesa emateko estrategiari heltzeko garrantzia

- **Familia homoparentalek eta sexu bereko bikote eta ezkontideek dauzkaten administrazio oztopo formalei buruzko gomendioa**

Zenbait administrazio jarduketa bikote eta ezkontide homosexualen eta familia homoparentalen errealtate juridiko eta sozial berrira formalki egokitzeko eskaera horri erantzuteko, hain zuzen ere, eman dugu [Arartekoaren abenduaren 23ko 4/2010 gomendio orokorra](#), familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalek kentzeari buruzkoa. Bertan kontu biri heldu diegu:

- Alde batetik, hainbat prestazio eta zerbitzuren funtzionamenduan oztopo formalek dirautenez, juridikoki bikote eta ezkontide homosexuali onartutako errealtatea formalki jasotzen ez dutelako, mota orotako prestazioak eta zerbitzuak lortzeko, izatezko bikote eta ezkontide homosexuali eta seme-alabak dauzkaten familia homoparentalei eragiten dieten eskabideak, inprimakiak edo beste edozein agiri araztu eta egokitu beharra, bikote, ezkontide edo familia horien errealtate pertsonala berdintasunez erabat jasoko duen formula bat sartuz.
- Bestalde, lagunduriko ugalketa tekniken bidez jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna erregistro zibilean ama biologikoaren emaztearen alde ezartzeari dagokionez, emakumezko ezkontideak dauden egoera anbigua dela-eta, sakoneko arazoa estatuko erakundeetan ebatzi behar bada ere, gure ustez, legezko egoera eta erregistro zibilen praktika argitzen ez diren heinean, Euskal Autonomia Erkidegoko

administrazio nagusiak familia horien egoera hobetzen lagun dezake, lagunduriko ugalketa teknika horiek burutzen diren klinika eta zentroei jakinaraziz behar bezalako argibideak eman behar dituztela ezkontide biek espero duten seme-alabari dagokionez ama biologikoaren bikotearen amatasuna ezartzeko orduan emakume ezkontideek daukaten legezko egoera bereziari buruz.

- **Herriaren defentsariaren aurreko ofiziozko jarduketa**

Era berean, arazo berari dagokionez, egoki iritzi diogu orokorrean antzemandako arazoa herriaren defentsariari helarazteari, erakunde hark ekiteko lagunduriko ugalketari buruzko [maiatzaren 26ko 14/2006 Legean](#) 7. artikularen lege interpretazioa argitu ahal izateko egoki deritzen jarduketak, erregistro zibilen jarduketek, aipatu inguruabarretan jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna erregistratzeari dagokionez, konstituzioko berdintasun printzipioarekin erabat bat datorren erregistroko praktika homogeneoa bermatzen dutela ziurtatzeko edo, bestela, gure iritziz garrantzi konstituzionala izan dezakeen arazoa konpontzeko irtenbide egokiak bila ditzan.

- **Pertsona transexualen egoerari buruzko txosten berezia**

Bestalde, 2010ean **“Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin”** izeneko gure **txosten bereziaren** edukien ezagutza hedatzen jardun dugu. Gure ahalegina batez ere talde horren premiei buruzko sentsibilizazioari lotu zaio. Horretarako, solasaldien, aurkezpenen eta herri-administrazioekin egindako bileren bidez gure proposamenak eta gomendioak zabaldu eta ezagutarazi ditugu, herri-botereak haren bidez ezarri ditugun helburuei atxikitzeke xedez. 2010. urtea bukatutakoan, uste dugu administrazioei txosten horrek dakartzan gomendioek proposatutako zentzuan eskaera zehatzagoak egiten hasi ahal dela. Hori dela-eta, 2011n haiei jarraipen zehatzagoa egiten hasiko gara.

2. **Kexa aipagarrienak**

Pertsona LGBTen eskubideei dagokienez erakundeetan jaso ditugun kexa azpimarragarrienak, alde batetik, **pertsona transexualek jasotzen dituzten osasun prestazioei** lotutako kontuei buruzkoak eta, bestetik, **erregistro zibilean sexu bereko ezkontideak eta emakumeen arteko ezkontzen baitan lagunduriko ugalketa tekniken bidez jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna ama biologikoaren emaztearen alde erregistratzeko arazoak** salatzen dituztenak izan dira.

Lehenengo kasuei dagokienez, gure esku-hartzeak agerian utzi du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren administrazio jarduketak egokitu beharra.

Bigarren kontuari dagokionez, kexek agertu zizkiguten arazo zehatzak ondo konpondu dira hasieran, baina eremu horretan legearen zehaztugabetasunaren arazoak oraindik dirau, eta Estatuko erakundeek konstituzioaren ikuspegitik heldu beharko diote.

4. Arartekoaren 4/2010 Gomendio orokorra, abenduaren 23koa, **“Familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzea”**ri buruzkoa.



Arartekoaren 4/2010 Gomendio orokorra, abenduaren 23koa.

Familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzea.

1. Sarrera

Azken bi urteotan batez ere gay eta lesbianen elkarteek egindako zenbait kexa eta salaketa jaso ditugu. Haien bidez jakinarazi dizkigute sexu bereko bikoteek, batez ere seme-alabak dauzkatenean aurre egin behar izaten dieten zailtasun edo oztopo formalak, euskal administrazioak ez direlako formalki behar beste edo ondo egokitu familia eredu berria, hots, sexu bereko gurasoek eta euren seme-alabek osatutakoa, eratzea eta juridikoki onartzea ahalbidetu duten zuzenbide aldaketetara. Holako familiak izendatzeko familia homoparental hitza sortu da.

Berez, familia horiek osatzen dituztenek eskubideak erabili ahal izatea eragozten ez duten oztopo materialak ez badira ere, oztopo formal hutsak baitira –gizarte eta zuzenbide errealtate berrira egokitu ez diren ereduetan oinarritutako inprimakiak betetzeari dagozkionak, esaterako-, beharrezkoa da administrazio inertiak bukaraztea eta bikotea edo familia homoparentala osatu duten homosexualen arazoirik gabeko zailtasunak sortzen dizkioten egoera guztiak berrikustea.

Egoera horren aurrean salatutako oztopoen jatorria oso sakabanatuta dagoenez gero, zenbait administrazio mailatetik eta zenbait euskal herri erakunde eta administrazioetatik baitatoz, erabaki dugu komenigarria dela gaiari era bateratuan heltzea eta honako gomendio orokorra ematea.

2. Bikote homosexualen eratzea eta seme-alabatasuna juridikoki onartzeko lege esparru berria

Bi legek sakonki aldatu dute bikote homosexualen araubide juridikoa, eta sexu bereko bikoteen seme-alabatasunari babes juridikoa eman diote. Alde batetik, ezkontzako eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duen uztailaren 1eko 13/2005 Legea, zein 2005eko uztailaren 3an jarri baitzen indarrean. Lege horrek ezkontza sexu bereko edo desberdineko pertsonak burutzea baimentzen du, eskubide eta betebeharrak oso eta berberak emanez zein ere den haren osaketa. Kode Zibilaren aldaketa harrezkero, ezkontzaren ondorioak osorik gorde dira erakundearen eraketa objektiboa errespetatuz, eta bakarrak izango dira eremu guztietan zein ere den ezkontideen sexua; besteak beste, bai gizarte eskubide eta prestazioei dagozkienak, bai adopzio prozesuetan parte hartzeko aukerari dagozkionak.





Legeak Kode Zibileko ezkontzari buruzko edo hura aipatzen duten artikuluen terminologia aldaketa ere egin du, baita hura osatzen dutenen sexuari buruzko berriazko aipamenak egiten dituzten Kode horretako arau batzuk ere. Zehazki, senar eta emaztearen ordezkariak edo ezkonlagunak aipatzen dira, eta haren esanahi juridikoa beste batekin ezkonduko pertsona izango da, biak sexu bereko edo desberdinekoak izan.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da gogoratzea, lege horretako lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, gure ordenamendu juridikoan ezkontzari egindako aipamen guztiak sexu bereko bi pertsonen ezkontzari zein sexu banako bi pertsonak osatutakoari aplikatzen zaizkiela ulertu behar dela. Legeak Erregistro Zibilari buruzko Legeko manu batzuk ere aldatu ditu.

Ezkontza zibilaren estatu erreforma hori indarrean sartu baino bi urte lehenago, Euskadin funtsezko aldaketa gertatu zen bikote homosexualak juridikoki onartzeko, Eusko Legebiltzarrak izatezko bikoteak arautzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legea eman baitzuen. Lege horrek, hala erregistratutako bikote homosexuali estatutu juridikoa aitortu ez ezik, 8. artikuluan sexu bereko bi pertsonak osatutako bikoteek batera adoptatzea baimendu zuen, sexu banako bi pertsonak osatutako bikoteen eta ezkontzaren bidez elkartutako bikoteen eskubide eta betebeharrak berberak emanez. Era berean, bikotekide baten seme-alaba adoptatu edo biologikoa beste bikotekideak ere adopta zezakeela onartu zuen. Horrela, gure Autonomia Erkidegoan bikote homosexualen seme-alabatasunaren onarpen juridikoa estreinatu zen.

Zalantzarik gabe, horrek guztiak zuzenbidearen unibertsoan gizartean bazegoen eta azken urteotan nabarmen hazi den errealitatea sendotu du, hain zuzen ere, aipatu lege erreformek bikote homosexual formalizatuak eratzea bultzatzen lagundu dutelako. Hortaz, familia homoparentalen errealitatea eztaba da eta haien onarpen juridiko osoaren ondorioz –Konstituzioko 14. artikulua zena– bikote heterosexualek osatutako familien eskubide eta betebeharrekin erabat parekatu behar dira; horrek, besteak beste, esan nahi du administrazioaren funtzionamendutik errealitate hori inplizitu edo esplizituki salbuesten edo ezezten duen iraganeko oztopo oro desagerrarazi behar dela –oztopoa formaltasun hutsa baino ez bada ere–.

3. Inertzia administratibo formalen iraupena eta administrazioaren funtzionamendua zenbait arlotan egokitu beharra

Arestian esan dugunez, jasotako kexa eta salaketen bidez egiaztatu dugu arlo askotan bikote homosexualak eta familia homoparentalek formalki onartuak izan beharra beren-beregi betearazi behar dutela, eta horrek inola ere zurrizkerik ez





dagoen tentsio, zalantza eta, kasu batzuetan, erabateko babesgabetasuneko egoerak sor ditzakeela. Horren ondorioak baztertzailak ere izan daitezke.

Batez ere, administrazioko inprimakiak eta bestelako agiriak errealitate horri egokitu ezean datza, aitak eta amak osatutako familiak baino ez baitituzte jasotzen. Hori dela-eta, seme-alabak dauzkaten familien buru diren sexu bereko pertsonen inprimakiak edo eskabideak aita edo ama agertuz bete behar dituzte euren nortasuna familia egitura horrekin bat etorri ez arren. Horrek seme-alabei ere eragiten die, inprimakietan euren seme-alabatasuna daukaten pertsonak errealitatearekin bat ez datorren gezurrezko moduan aipatu behar dituztenean. Bestalde, kasu batzuetan egokitzapenik eza bikoteei eurei dagokie, ezkontidea, gizon edo emakumea, aipatu behar denean, adibidez, pertsona nagusientzako egoitzak bezalako zerbitzu edo prestazio batzuk lortzeko.

Jaso ditugun salaketak batez ere euskal klinika eta ospitaletan seme-alabak jaiotzerakoan bete beharreko inprimakiei; hezkuntzarako edo beste gauza batzuetarako diru-laguntzak eskatzeko inprimakiei; laguntza eskabideei, esaterako, eskola garraiorako hobariei; eskola, ikastetxe edo hezkuntza zentroetarako, jantokietarako, hartzaindegietarako, jolas-zentroetarako, kiroldegietarako, udalekuetarako, hizkuntza eskoletarako... izan ematei dagozkie. Esan bezala, kasu batzuetan bikoteek prestazio edo zentro batzuk eskuratu ahal izateko bikotekide biak sexu berekoak izateko aukera jasotzen ez duten inprimakiak bete behar dira.

Edonola ere, kontua da oztopo horien jatorria oso sakabanatuta dagoela eta herri erakundeei ez ezik erakunde itundu edo pribatuei ere badagokiela, zerbitzu edo prestazio publikoak kudeatu arren edo jarduera burutzeko baimen administratiboa eduki behar badute ere. Horrek ez du esan nahi arazoa orokorra denik, gero eta gehiago direlako egoera bidegabe horri buruz kontzientziatu eta errealitate berrira egokitu diren erakundeak.

Izatezko bikoteak arautzen duen 2/2003 euskal Legeak, IV. kapituluan – *Administrazioaren arloko zuzenbide publikoko erregimena* izenekoa- herri administrazioak onartzen zuen errealitatera egokitzeko araubidea jaso zuen, eta hura zerga-erregimenari, funtzio publikoaren erregimenari, bitartekaritzari, osasun-zerbitzuei, adinekoentzako egoitzei, post mortem administrazio-izapideei, espetxeetako erregimenari eta laneko eta Gizarte Segurantzako erregimenari dagokienez. Lege xedapen horiek eremu horietan ezkontzaz elkartutako pertsonen aldean (legea emateko unean, heterosexuak baino ez) berdintasuneko baldintzetan jardun behar duen araubide juridiko materialari buruzkoak ziren. Logikoki, ez da beharrezkoa arau batek berrestea berdintasuneko araubideak ezkontza heterosexualetan eta homosexualetan berdin jardun behar duela, bereizketa horrek dagoeneko ez duelako garrantzirik, sexu bereko bikoteei ezkondu ahal izatea onartu zainez gero.

Hala ere, paradoxikoa da, eta juridikoki onartezina, juridikoki onartutako errealitate hori formalki jaso gabe, izatezko bikotean edo ezkontzan elkartutako sexu bereko pertsonentzako eta haiek eratutako familietako gainontzeko kideentzako





desberdintasunezko tratua sortzen duten eskabide, inprimaki eta bestelako agiri ereduak oraindik irautea, eta neurri horretan konstituzio arauko 14. artikuluan finkatutako berdintasun printzipioa urra dezakete.

Hori dela-eta, erakunde honen aburuz, aipatu lege biak onartu zirenetik, hurrenez hurren, 5 eta 7 urte baino gehiago igaro diren honetan, ezinbestekoa da zuribiderik ez daukaten inertzia horiek behin betiko bukaraztea, izatezko eta ezkontzako bikoteei eta pertsona homosexualak era litzaketen familiei buruzko kontzeptu berria ezarri duten erreformatatik igaro den denbora luzea kontuan hartuta.

4. Ama lesbianen seme-alabatasuna erregistroan erregistratzeko arazoa

Beste kontu bat da bi emakumek osatutako bikoteko ama ez biologikoaren seme-alabatasuna erregistroan erregistratzeari dagokiona. Jarraian azalduko ditugun zio pragmatikoak direla-eta, eta emakumeen arteko ezkontzen barruan jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna erregistratzerakoan gerta litezkeen oztopoak arintzeko edo hobetzeko xedez, egoki iritzi diogu gaiari gomendio honen esparruan heltzeari, sakoneko arazoa autonomia esparruan konpontzerik ez badago ere, estatu eskuduntzak ukitzen dituen heinean.

Arazoaren berri izateko, kexa zehatz bat eta gay eta lesbianen eskubideen alde lan egiten duten euskal elkarten haserrea eta salaketa iritsi zaizkigu. Izan ere, ezkontzan elkartutako emakumezko bikoteek arazoak daukate haietako batek lagundutako ernalkuntzaren bidez seme-alaba sortu eta besteak, seme-alaba Erregistro Zibilean erregistratuz, bere seme-alaba biologikoa ez izan arren, haren amatasuna finkatu nahi duenean. Halako kasuetan, lagundutako ernalkuntzako teknikei buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legeko 7. artikulua, erregistroan pertsonen sexuari buruzko aipamena zuzentzea arautzeko martxoaren 15eko 3/2007 Legeko lehenengo xedapen gehigarriak emandako idazketan, 3. atalean, honakoa xedatzen du: *“emakumea, legez edo izatez bananduta egon gabe, beste emakume batekin ezkontuta dagoenean, azken horrek, ezkonagoitzako Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean, bere ezkontidearen seme-alaba jaiotzen denean, jaiotakoari dagokion seme-alabatasuna bere alde ezartzea onartzen duela adierazi ahalko du”*.

Ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duen 13/2005 Legeak egindako ezkontza zibilaren erreformaren bidez, eskubidea sexu bereko pertsonen zabalduz, eskubideei dagokienez ezkontza heterosexualak eta homosexualak parekatu egin dira eta, beraz, sexu bereko bikoteek ezin dute bereizkeriarik pairatu. Hala ere, gerora, legegileak Kode Zibilean dagoen erabateko parekatzea zehaztu egin zuen, amatasuna legez ezartzeari dagokionez, ulertzen baitu, lagundutako ernalkuntza kasuetan, ezkontza ez dela nahikoa amatasun bikoitza ezartzeko, bai ama biologikoari bai harekin ezkontutako emakumeari dagokienez. Hori dela-eta, lagundutako ernalkuntzako teknikei buruzko 14/2006 Legeko 7. artikuluan hirugarren paragrafoa –arestian hitzez hitz kopiatu duguna- sartu zuen. Puntu horretan, gogoratu behar da, lagundutako ernalkuntza kasuetan, lege horretako 8.





artikulutik aitatasunerako (ezkontza heterosexualetan) ondorioztatzen den arautzeak adierazten duen bakarra da amaren lagundutako ernalkuntzaren ondorioz jaiotako seme-alabak emaile baten edo batzuen ekarpenez egindako ernalkuntza alde aurretik, formalki eta beren-beregi onartu duen senarraren seme-alabak ere badirela.

Horren ondorioz, lege horrek ez ditu berdin arautzen, emaile baten edo batzuen ekarpenarekin lagundutako ernalkuntza kasuetan, aitatasun ez biologikoa ezartzeko betekizunak eta amatasun ez biologikoa ezartzekoak, azken horretarako Erregistro Zibileko epaile arduradunaren aurrean seme-alabatasuna onartzeko borondatea adieraztea ezartzen baitu. Kontua da aitaren alde aurretiko adierazpena haren emazteari lagundutako ernalkuntza teknikak egiten zaizkion osasun zentroan sinatuz egiten dela. Sinatutako agirian lagundutako ernalkuntzari baimena ematen diola adierazten du, eta horrek, ondoren, seme-alaba jaiotzerakoan, bidea ematen du haren aitatasuna automatikoki eta izapiderik gabe ezartzeko.

Lege arautze hori egokia eta konstituzioko berdintasun oinarriaren araberakoa den eztabaidatzen hasi gabe, gure eskumen esparrua gaindituko bailuke, egiaztatu ahal izan dugu lege horretako 7. artikuluko 3. atal horrek emakume ezkonduentzat dakarren arautzea erregistroko jardunbide ez uniformeak sortzen ari dela, bikote lesbiana ezkonduetako ama ez biologikoei euren ezkontideen seme-alabarekiko amatasuna ezartzeko egiatan eskatzen zaizkien betekizunei dagokienez. Horrela, erregistro zibil batzuetan, ama biologikoaren bikotekidearen adierazpena seme-alaba jaio ondoren, hots, hura Erregistro Zibilean erregistratzera joandako unean, egitea onartzen ari dira, eta beste erregistro batzuetan, aldiz, erditu aurretik ama ez biologikoa Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean seme-alabatasuna bere alde ezartzeko nahia formalki adierazteko agertzea eskatzen ari dira, eta horren ondorioz, hura gertatu ez bada, ez da ama biologikoaren emakume ezkontidearen aldeko seme-alabatasuna onartzen, eta adopzio prozesua hasarazten zaio, bere ezkontzaren baitan jaiotako seme-alabarekiko amatasuna ezartzea nahi badu.

Hitz lauz, 7. artikulua ama ez biologikoa erditzearen aurretik (ez da une zehatza ezartzen) Erregistro Zibileko arduradunaren agertzea eskatzen du, jaioko denaren seme-alabatasuna bere alde ezartzeko baimena adierazteko. Manua hitzez hitz hartuta ("*...*) adierazi ahalko du (...) **onartzen duela, bere ezkontidearen seme-alaba jaiotakoan, jaiotakoari dagokion seme-alabatasuna bere alde ezartzea.") ondorioztatzen da, gure iritziz, dirudienez legegilearen asmoa, edonola ere, lagundutako ernalkuntza jasotzen duenaren emakume ezkontideari ondoren nahi ez duen seme-alabatasuna nahi gabe ez ezartzeko aukera gordetzea dela, eta ez haren amatasunaren legezko ezarpenari oztopo bat eranstea.**

Gure aburuz, horrek azaltzen du zergatik erregistro zibil batzuetan ez den eskatzen Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean alde aurretik agertzeko formaltasuna eta, aitzitik, zergatik onartzen duten automatikoki, ezkontzaren baieztatze hutsaz, ezkontza osatzen duten bi emakumeen seme-alabatasuna erregistratzea, seme-alaba jaio ondoren, edo zergatik eskatzen duten bakarra klinikan sinatutako agiriak baino ez aurkeztea, non lagundutako ernalkuntza jasotzen duenaren bikotekideak





teknika horiek erabiltzea baimentzen baitu, ezkontza heterosexualetan aitari dagokionez egiten den bezalaxe, senarra ere hauraren aita biologikoa ez denean. Horrela, erregistro horietan klinikan erditu aurretik ama biologikoaren ezkontideak egindako onarpena ari dira ontzat ematen, borondatea adierazten duen heinean, jaiotze aurretik Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean agertu ez bada ere. Horrela erregistro batzuek baino ez dihardute, beste batzuek klinikan emandako baimenaren balioa onartzen ez dutelako, eta horrek emakume horientzat segurtasun juridiko ez argia sortzen du.

Hala eta guztiz ere, egoera horretan dauden emakume ezkontide gehienek ez dute araudi hori ezagutzen eta ulertzen dute seme-alaba euren ezkontzaren baitan jaiotze hutsak ezkontza osatzen duten emakume bien aldeko seme-alabatasun automatikoa dakarrela, are gehiago, kontuan hartuta bikoteko emakumeetako batek lagundutako ernalkuntza jasotzen duen klinika edo ospitaleetan haren ezkontideari bikote heterosexualetako aitei aurkezten zaien inprimaki bera sinatzeko aukera ematen zaienean. Izan ere, agiri horretan jasotzen da baimena ematen dutela teknika horiek burutzeko eta, aitei dagokienez, gerora hori nahikoa izango da –azaldu dugunez- jaiotze den seme-alabaren seme-alabatasuna automatikoki haren alde ezartzeko (lagundutako ernalkuntzako teknikei buruzko 14/2006 Legeko 8. artikulua zena). Erregistro zibiletako jarduketetan irizpide bateraturik ez egoteak are zailago egiten ditu emakume bikote horien egoera, eta gai horretan segurtasun juridiko ez handia sumatzen dute haiek.

Hemen agertutako sakoneko arazoa, zalantzarik gabe, estatu eskuduntza dela (legedia zibilari buruzko Konstituzioko 149.1.8 artikulua) eta, ondorioz, gure jardura esparrua gainditzen duela uste badugu ere, gure iritziz komenigarria da orain Euskadin lagundutako ernalkuntzak burutzen dituzten osasun zentro, ospitale edo klinika guztiei helaraztea komeni dela teknika horien pean jartzen diren emakumeen ezkontideei jakinaraztea erditzea baino lehenago Erregistro Zibilera jo behar dutela, teknika horien bidez ezkontideetako batengandik jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna ezkontide bien alde erregistratu nahi badute. Klinika horiek lagundutako ernalkuntzako tekniken pean jartzen diren bikote guztiei lege argibide batzuk eskaintzen ari zaizkien heinean –haien artean azpimarratzekoa da, hain zuzen ere, aitaren baimen eskabidea-, gure ustez ezkontzan elkartutako lesbiana bikoteentzako berariazko argibideak sartu behar lituzkete, ulertuta, erditu aurretik Erregistro Zibilera jo ezean, gerta daitekeela amatasun ez biologikoa ez onartzea eta orduan adopzio prozesuari ekin beharra, izatezko bikoteei dagokienez gertatu bezala, haietan bikotekidearen aldeko seme-alabatasuna adopzio prozesuan baino ezin baita gauzatu.

Horretarako, uste dugu Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak (Eusko Jaurlaritzak) egun Euskadin lagundutako ernalkuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten osasun zentro guztiei lege egoera horri buruz behar bezala jakinaraz liezaiekeela.

Kontuan izanda arazo horren azken funtsa lege anbigualentzian datzala, erregistroen interpretazio eta jardunbide ez uniformeak eragiten baititu, egoki iritzi diogu





Espainiako Herriaren Defendatzaileari antzemandako arazoaren berri emateari, erakunde horrek erregistroen jardunbideen argitzea eta konstituzioko berdintasun oinarriarekin guztiz bat datorren lege interpretazioa lortzeko jarduketei ekiteko aukera azter dezan.

5. Ondorioak

Beraz, bi dira gomendio honetan agerian utzi nahi izan ditugun arazoak:

- prestazio eta zerbitzu askoren funtzionamenduan dirauten oztopo formala; oztopok honela agertzen dira: prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko behar diren inprimaki eta agirietan ez zaio formalki jaramonik egiten bikote eta ezkontza homosexualek eta familia homoparentalek juridikoki onartuta daukaten errealitateari.
- emakumeen ezkontzek daukaten egoera anbigua, ezkontza horien baitan lagundutako ernalkuntzako tekniken bidez jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna emakume bien alde ezartzeari dagokionez.

Lehenengo kontuari dagokionez, gure ustez euskal herri administrazio guztiek berraztertu behar dute maila guztietako funtzionamendua eta inertzia formal horiek araztu, zuribiderik ez edukitzeaz gain, eskubideak urra baititzaketelako. Bestalde, giltzarria da, administrazioen jarduketei eurei dagokienez jokatu ez ezik, administrazioak zenbait zerbitzu publiko kudeatzen dituzten edo jarduteko administrazioaren baimena behar duten erakundeetara ere jotzea, euren jardunbideak ere azaldutako bikote homosexualen eta familia homoparentalen errealitatera egokitzeke eskatzeko.

Bigarren kontuari dagokionez, sakoneko arazoa estatu erakundeek konpondu behar badute ere, gure ustez, lege egoera eta erregistro zibilen jardunbidea argitzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak familia horien egoera hobetzen lagun dezake, lagundutako ernalkuntzako teknikak burutzen diren klinika eta zentroi jakinaraziz behar bezala argitu behar dutela zer lege egoera berezian dauden emakume ezkontideak biek espero duten seme-alabarekiko ama biologikoaren bikotekidearen amatasuna ezartzeko garaian.

* * *

Horregatik guztiagatik, Arartekoak honako gomendio hauek egiten ditu:





GOMENDIOAK

Euskal herri-administrazio guztiei:

- Mota guztietako prestazioak edo zerbitzuak lortzeko, izatezko bikote eta ezkontza homosexualei eta seme-alabak dauzkaten familia homoparentalei eragiten dien eskabide, inprimaki edo agiri oro araz eta formalki egokitu dezatela, bikote, ezkontza edo familia horien errealitate pertsonala berdintasunean erabat jasotzen duen bidea sartuz.
- Jardunbide hori bere eskumeneko zerbitzuak edo prestazioak kudeatzen dituen edo jarduteko baimena eman dion zentro edo erakunde orori eska diezaiola, arestian aipatu pertsoneri eragin diezaiokeen heinean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiari:

- Lagundutako ernalkuntzako teknikak burutzen dituzten klinika, ospitale eta osasun zentro guztietara jo dezala, eta jakinarazi diezaiela komeni dela ezkontzan elkartutako lesbiana bikote guztiei jakinaraztea, elkarrekin seme-alaba izateko mota horretako prozesua burutzen ari badira, jaiotzeko unean adopzio prozesura jo barik amatasuna ezartzeko, erditu aurretik ama biologikoaren emakume ezkontideak dagokion Erregistro Zibilean agertu behar duela Erregistro Zibileko epaile arduradunaren aurrean jaioko denaren seme-alabatasuna onartzeko asmoa formalki adierazteko.



5. Euskadiko transgeneroei eta transexualei buruz Arartekoak egindako gomendioak. Arartekoak Eusko Legebiltzarrarentzat prestatutako txosten berezi honen laburpena: ***Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin***, Vitoria-Gasteiz, 2009.

TRANSGENEROEN ETA TRANSEXUALEN EGOERA EUSKADIN

Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia



Egoeraren diagnostikoa egin eta egoki diren ondorioak atera eta gero, kapitulu honetan gomendioak aurkeztu ditugu. Hautemandako arazoei konponbidea eman eta asebeste ez diren beharrei erantzuna eman nahi izan diegu.

I. INFORMATZEA ETA SENTSIBILIZATZEA

1.- **Transgenero eta transexualitateari buruzko informazioa emango duten ekimena abiatzea, transgenero eta transexualen arazoan gainean gizarteak duen ezagutza zabaltzea eta egun dauden estereotipoak eta aurreiritziak gainditzea.**

Beharrezkoa da euskal administrazioek transfobiaren aurka kanpainak eta ekintzak sustatzea, baita genero identitatearen esparruan dagoen bizipen aniztasunaren aurrean gizarte sensibilizatorako programak bultzatzea ere.

Helburua pertsona horien irudia errealitatearekin bat transmititzea da: pertsona arruntak dira, bakoitzak bere berezitasunak dituela, beste edonor bezala. Sentitzen duten sexuan garatzeko hautua ez da fribolitatea edo apeltaldia. Aitzitik, genero identitateak eta giza duintasunak eragiten du. Emakume eta gizon jaio ziren gizon eta emakumeak dira. Gainerako herritarren antzera, gizarte eta osasun arreta egokia jasotzeko eskubidea daukate. Garrantzitsua da ere genero identitatearen (gizonezko edo emakumezko indibidualtasunaz norberak duen pertzepzioa, bakarra eta iraunkorra) eta sexu orientazioaren arteko nahastea gainditzea.

Gutziz garrantzitsua da gizarteari informazioa ematea transexualitatearen eta transgeneroaren gainean. Yogyakartak sexu orientazioaren eta genero identitatearen gainean giza eskubideen legeria aplikatzeari buruz jasotzen dituen printzipioak zabaldu behar dira, baita pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legeko edukia ere, beste lanabes juridikoak beste.

2.- **Gaia lantzen den esparru ezberdinetan, transexualitatea sexu biologikoaren eta genero identitatearen arteko disoziazioa den egoera pertsonal gisa hartzearen alde egitea, gutxiespena edo estigmatizazioa eragiten duten konnotazioak alde batean utzita.**

Transexualitatea buruko nahaste edo gaitz gisatzat hartzen duen ikuspegia gainditzea da helburua. Gogoeta hori ezbaian jarri dute adituek, eta diagnostiko horren izaera guztiz garaiz kanpo dagoela adierazi dute. Gaiari horren estigmatizatzaile ez den ikuspegitik heltzea egokiagoa ematen du. Hala ere, ez da horregatik nahitaez saihestu behar pertsona horiek behar duten laguntza soziala eta osasuneko, beren egoera pertsonala arrazoi hartuta.

- 3.- **Jardunbide egokiei buruzko eskuliburuaren sorrera sustatzea eta horiek bete-tzea. Hedabideetara bideratuko dira horiek, transgenero eta transexualitateari buruzko informazioa trataera egokia eman dezaten eta estereotipo negatiboak indartzen dituzten kasu edo albisteetan sakontzea saihestu dezaten. Hedabideetan, transgenero eta transexualitateari buruz dagoen informazioaren izaera plurala eta bazterkeriarik gabea bultzatu.**
- 4.- **Pertsona transgenero eta transexualei arreta emateko dauden baliabideen berri emateko ekintzak sustatzea. Bereziki hainbat erakunde publikok eta transexualei eta LGBTI talde osoari arreta emateko elkarteek finantzatzen dituzten arreta zuzeneko zerbitzu publikoen berri hedatu behar da.**

Administrazio publikoek koordinazioz jardun behar dute informazio esku-paperak edo baliabide gidak sortu, argitaratu eta zabaltzeko. Horren bidez eragindako pertsonen pairatzen duten ezagutza falta ezabatzea izango da helburua.

Txosten honetan adierazi bezala, Internet da pertsona horiek erabiltzen duten eza-gutze eta informazio iturria, anonimotasuna bermatzen baitu bide horrek. Horregatik oso garrantzitsua da egun dauden baliabideak, gida, etab. sarean egotea eta halako edukiak dituzten orrialdeen sorrera laguntzea.

II. TRANSEXUALAK ETA TRANSGENEROAK HEZKUNTZA ARLOTIK BAZTERTZEARI AURREA HARTZEA

- 5.- **Eskola giroan transgenero edo transexualek jasaten duten bortizkeriazko edo gizarte bazterkeriazko edozein formari aurrea hartzeko neurri bereziak garatzea.**

2008an, Arartekoaren erakundeak ezohiko txostena argitaratu zuen *Bizikidetzak eta gatazkak ikastetxeetan* gaiari buruz. Txosten horren seigarren kapituluak 28 gomendio planteatu ziren guztira. Lehenengo hamaseiek prebentziorako neurri bereziak zein izan litezkeen dute hizpide, eta testuinguru honetan ondo asko aplikatu daitezke. Bizikidetasuna hobetzeko planekin lotutako neurriak dira. Zentroei laguntza ematea da helburua, aholkularitza, irakasleentzako informazioa eta materiala bide direla. Ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko arau esparrua berrikustea. Jardun protokoloak berrikustea, bizikidetasunaren hobekuntza sartu eta edozein ikastetxeren lehen helburu bihurtu edozein motatako tratatu txarrak gaitzestea. Curriculum eta metodologia egokitu behar dira bizikidetasuna zer den ikasteko. Era berean, familiak prestatzeko ekintzak bultzatu behar dira eta familia-eskola elkarlana abiatu, besteak beste.

Genero identitateari dagozkion gaiak sartzeari, dibertsitatearekiko errespetua. Hezkuntza eta irakasleak hartzeko programetan transgenero eta transexualentzat dauden baliabideak berebiziko garrantzia duten lanabesa dira bereizkeriari, bazterketari edo etsaitasunezko jarrerari aurrea hartzeko.

6.- Bazterkeria, bereizkeria edo edozein motatako indarkeria (erasoak, jazarpenak, zigorrak) pairatzen duten ikasle transgenero eta transexualei laguntza eta babes egokia ematea.

Lehen aipatu dugun txosteneko 17tik 22ra bitarteko gomendioek susta daitezkeen neurriei buruzko ideiak proposatzen dituzte: biktimaren segurtasunari buruzkoak, jazarpen duenarekin berehala jardutea, tolerantzia zero edozein erasoren aurrean, zentroko arduradunei eta tutoreei informazioa banatzea, etengabeko jarraipena eta prozedura ez berandutzea, beste batzuen artean.

Jardun koordinatua, energiaduna eta egokia. Honako kasuetan indarkeriaren bukaera eta biktimaren segurtasuna izan behar dira helburua, alde batetik. Bestetik, bazterkeriak, sufrimendua, biktimaren errendimendu akademikoa gutxitzea edo zentroa uztea saihestu behar dira. Tamalez, egiaztatu ahal izan dugunaren arabera, kasu batzuetan biktimek zentroa uzten dute.

7.- Egoki diren mekanismoak bideratu, konfidentziasunez eta aurretik ziurtatuta, ikasle transexual eta transgeneroei beren sexu psikosozialari dagokion izenez dei diezaieten irakasleek, ikasleek eta zentroko langileek. Era beran, izen hori agertu behar da zentroko ohar tauletan eta agiri administratiboetan.

III. ADMINISTRAZIOAREN AZPIEGITURAK ETA ARRETA EMATEKO ZERBITZUAK EGOKITZEA

8.- Beharrezko neurriak bideratu euskal administrazio publikoen jardunean aintzat har dadin pertsonen beren sexu identitatearen arabera tratua jasotzeko duten eskubidea. Aurretik transexualak direla ziurtatu beharko dute. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek eskubide hori baliatu ahal izango dute, jatorriz nongoan diren edo beren legezko egoera edo administratiboa zein den aintzat hartu gabe.

Genero identitatea izaeraren eskubideen zati da, eta zuzenean lotuta dago pertsonaren duintasunaren eskubidearekin.

Txostenean adierazi bezala, administrazioak itxuraz tratu neutroa ematen du. Hala ere, zenbatezina dira ematen duen trataeragatik pertsona horien bazterkeria soziala eragin, sufrimendua handitu edota tratu iraingarria eragin dezaketen egoerak: epaitegietako korridoretan, osasun zentroetan edo ospitaletan, administrazioko edo polizia-bulegoetan etab. beren erregistro izenarekin deitzea, nahiz eta itxurak argi utzi beste sexu batekoak diren. Arreta zuzeneko zerbitzuetan gizonetzko edo emakumezko gisa

tratatu, erregistroko zuzenketa egin ez duten emakume edo gizon direnean, hurrenez hurren. Pertsonaren sexua aipatu behar den prozesuetan beren sexu biologikoa aipatzea sexu psiko-soziala albo batean utzita, etab.

Erregistroko zuzenketa egiteko nazionalitate espainola eduki beharrak etorkinek aldatuta hori ezin egitea dakar. Aitzitik, beren egoera administratiboa edo legezkoa edozein izanik, euskal herritar gisa eskubide berak dituzte euskal herri-administrazioen aurrean.

- 9.- Beharrezko neurriak hartu euskal herri-administrazioetako langileek, eta bereziki herritarrekin zuzenean harremana dutenek (epaitegietan, polizia-etxeetan, osasun zentroetan, arreta zuzeneko zerbitzuetan, etab.) transexualitateari eta transgeneroari buruzko prestakuntza egokia izan dezaten, pertsona horiek errespetuz tratatzeko helburuarekin.**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35i) artikuluekin bat: *“Herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan eskubide hauek dituzte: errespetua eta begirunea erakutsi behar diete agintariek eta funtzionarioek, eta laguntza eman, eskubideez baliatzeko eta eginbeharrak betetzeko”*.

Transexualek eta transgeneroek ezaugarri bereziak dituzte eta beharrezkoa da aurretik prestakuntza eta ezagutza edukitzea, ematen den tratua benetan errespetuzkoa izan dadin.

- 10.- Prestakuntza eman transgenero eta transexualitate esparruan, pertsona horiei arreta ematen aritu daitezkeen profesionali: medikuntzakoak, gizarte heziketakakoak, psikologiakoak, zuzenbidekoak, sexologiakoak, gizarte langintzakoak, etab. Prestakuntza horren baitan jaso pertsona horiei arreta emateko dauden baliabideen ezagutza.**
- 11.- Kirol instalazio publikoetan, ikastetxeetan, adineko pertsonen egoitzetan, ezintasuna duten pertsonen egoitzetan, igerilekuetan, komunetan eta dutxa publikoetan ekipazioa egokitzea, zentzuzko denbora tartean, aldagela eta dutxa indibidualak egon daitezen. Horren bidez pertsonen intimitatea eta duintasuna gordeko baitira.**

Arartekoak kexa formal bat jaso du gai horren inguruan, eta hainbat jakinarazpen informal. Udal kirol instalazioetan aldageletan kabina eta dutxa indibidualak egotea kome-nigarria litzatekeela adierazi ziguten.

Herritarren eskaera guztiz zentzuzkoa dela uste dugu, eta gure aburuz, aipatu bezalako gune publikoetara zabal daiteke. Toki horietan, transexualak bereziki, eta herritar guztiek orokorrean, batzuetan eta gogoz kontra, biluzik agertu behar izaten dira. Gure ustez, neurri hori martxan jarritz gero modu eraginkorrean zainduko litzateke intimitatea edukitzeko eskubidea. Halako testuinguruan transgenero eta transexualek pairatutako

sufrimendua ezabatzeko neurriak jarriko lirateke eta bestelako egoera liskartsuak saihestuko lirateke. Izan ere, inoiz eraso eta tratu iraingarri bihurtu dira halako egoerak.

Horri dagokionez, Arartekoaren erakundeak adierazitakoaren zentzu bereko eba-zpena eman zuen 2009ko abuztuaren 19an, 433/2008 kexa-espeditentearen harira. http://192.168.100.2:8080/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1697_3.pdf.

IV. GIZARTE ARRETA ETA LANERATZEA

12.- **Pertsona horientzako zerbitzu eta baliabideen artean dagoen koordinazioa hobetzea, baita horien eta gizarte zerbitzuen artean dagoena.**

Egindako azterlanetik ondoriozta daitekeen moduan, transgenero eta transexualei arre-ta emateko dauden zerbitzu guztien arteko koordinazio falta handia dago. Egoera hau gainditzea da helburua, pertsona horiek hobeto eta gertuago izan ditzaten baliabideak.

Premia dago baliabideen (gizartekoak, osasunekoak, hezkuntzakoak, etab.) arteko ezagutza eta harremana sustatzeko. Era berean, arre-ta bideak argituko dituzten jardun direktorioak eta protokoloak egin behar dira. Koordinazioari eskerrak jardunak bata bestearen gainean jartzea edo arre-ta hutsuneak geratzea saihesten da.

Gizarte zerbitzuen gertutasuna ezin da alferrik galdu, horregatik, zerbitzu horietan dau-den langileek pertsona horientzako arre-ta berezitua duten zerbitzuen berri edukitzea eta horietara bidaltzea komeni da.

Era berean, osasuneko profesionalek gizarte baliabideen aukeren berri izan behar dute eta pertsona horiek baliabideetara egokiro bidali.

13.- **Aholkularitza juridikoko egokia ematea transgenero eta transexualak zuzenean hartzen dituzten eta erakunde publikoek finantzatzen dituzten zerbitzu pu-blikoetan.**

14.- **Pertsona horiek lanean txertatzea erraztea, lanerako sarbidea berdintasun egoera bizi dutela bermatuta. Laneko bereizkeria kontrolatzeko lanabes aktiboek erake-ta eta erabilera sakontzea. Sindikatuak eta enpresa erakundeak sentsibilizatu eta informazioa ematea, pertsona horien laneko bereizkeria saihesteko.**

Transexual edo transgenero izateagatik inoiz bereizkeria pairatu duten pertsonak di-renez, beren berdintasuna sustatzeak laguntza neurri bereziak sustatzea ekarriko du batzuetan.

15.- **Bereziki zaurgarriak diren taldeek (prostituitzen diren emakume transexualak, espetxeetan dauden transexualak, egoera irregularra duten transexual etorki-nak, etab.) herritar guztiek sarbide duten egungo gizarte estaldurak bermatuta izan ahal izateko, egun dauden oztupoak kentzea.**

Transgenero eta transexualen baitan hauteman denez, pertsona talde horiek guztiak laguntza eta gizarteratze neurrietara sartzeko arazoak dituzte. Beraz, behar-beharrezkoa da oztopoak gainditzea eta gizarte zerbitzu horietako profesionalak talde hauetara gerturatzea erraztea.

- 16.- Egun dauden gizarte- eta osasun-baliabideek modu egokian funtziona dezaten zaintzea, arreta-baliabide horiek transexual eta transgeneroen familiei laguntza-neurriak eskainiko dizkietela ziurtatzeko.**

V. OSASUN ARRETA

- 17.- Zenbait neurri hartzea sexua berresleitzeko tratamendu osoari buruzko osasun-prestazioa EAEko Osasun Sistema Publikoak finantzaturako gainontzeko prestazioak bezalaxe egin dadin, Osasun eta Kontsumo Sailak pertsona horien behar terapeutikoei erantzun osoa emateko aurreikusi dituen jarduerak gauzatu bitartean.**
- 18.- Beharrezko neurriak sustatzea Gurutzeta Ospitaleko Genero Identitatearen Nahasmenaren Diagnostiko eta Tratamendu Unitatea eta, beharrezkoa bada, dagokion kirurgia egiteko esleituko den beste unitatea egokiro koordinaturik egon daitezen.**

Jada eginda dauden medikuaren eta psikologoaren txostenak eta diagnostiko probak bateragarriak eta onargarri izatea beharrezkoa da, horrela pertsona bidali duten zentroan "ez dira hasieratik hasi beharko berriz".

- 19.- Modu eraginkorragoz ezagutzera ematea Gurutzeta Ospitaleko Genero Identitatearen Nahasmenaren Diagnostiko eta Tratamendu Unitatea, behintzat transgenero eta transexualak gertuagotik tratatzen diren arreta esparruetan.**
- 20.- Transexualitatearekin eta transgeneroarekin lotuta erregistratzen diren aurrerapen zientifiko eta teknologikoen arabera mediku jardunaren eguneratzea bultzatzea.**
- 21.- Beharrezko osasun bermerik gabe autohormonatzea edo protesiak jartzeak dakartzan arriskuen berri ondo ematea.**

VI. ESPARRU JURIDIKOA EGOKITZEA, TRANSEXUALEI ETA TRANSGENEROEI BABES HANDIAGOA EMATEKO

- 22.- Erregistroan sexuaren aipamena aldatzea adosteko bi urtez medikuaren tratamendua jasotzen egon behar izana nahitaezkoa izateari buruzko hausnarketan sakontzea, eta hala badagokio, egungo legezko esparrua alda dadin proposatzea.**
- 23.- Beharrezko neurriak hartzea, transexual edo transgenero izateagatik pertsonak jasan dezaketen bereizkeria, jazarpena edo erasoek, biktimaren sexu edo sexu orientazioagatik sortzen direneko zigor neurri bera izan dezaten.**

Badakigu zigor bidea ez dela bakarra. Ziurrenik ez da modurik eraginkorrena gehienek "ezberdintzat" jotzen dituztenen aurkako aurreiritziak eta intolerantziaren aurrean bizikidetasuna bultzatzeko. Lehentasunezkoa da botere publikoek aktiboki eta koordinatuki parte hartzea, bereziki, hezkuntza, osasun, gizarte ongizate, lan eta gizarte segurtasun esparruetan eskumena dutenen kasuan.

Hala ere, esparru honetan bizikidetasuna oztopatzen duten trabek bizitzeko, askatasunerako, berdintasunerako, ohorerako edo osotasun fisiko edo moralerako eskubi-deak baliatzea saihestu bitartean, uste dugu, zuzenbide estatuak ezin duela baztertu zigor esku-hartzea, "última ratio" gisa balio baita oinarri ematen dioten balioak defendatzeko.

- 24.- Beraien sexuaren zuzenketa erregistroan guztiz burutu ez duten emakume transexualak emakume gisa hartzearen gainean hausnartzen hastea. Horretarako, transexual direla ziurtatu beharko dute aurretik. Emakumetzat onartuta, genero indarkeriaren aurrean babesa jasoko dute eta indarkeria horren biktimei dagozkien gizarte baliabideetarako sarbidea izango dute.**

Emakumeen aurkako indarkeriak gizarte kezka handiena eragiten duen fenomenoetako bat da. Zalantzarik gabe, genero arrazoiengatik ematen den bereizkeriaren adierazgarri handiena da. Tamalez, emakume transexualak ez dira salbuespen, eta batzuetan indarkeria hori pairatzen dute. Aitzitik, txostenean adierazi bezala, erregistroan emakume gisa jasota ez dauden heinean, ezin dute administrazio publikoek indarkeria mota horren biktimez jarritako arreta eta babes mekanismoez gozatu. Honakoez ari gara: poliziaren babesa (etengabeko zaintza, errutinaren gaineko prebentzio neurriak, erasotzaileari jarraitzea, autobabeserako prestakuntza...), doako laguntza juridikoa, ofiziozko txanda berezia, eta etxebizitza alorrean ezarritako beste batzuk, laguntza ekonomikoak eta harrera baliabideetarako sarbidea, laguntza psikologikorako eta lanean txertatzeko prestazioak, etab.

VII. TRANSEXUALEN ETA TRANSGENEROEN BERRI JAKITEA, HAI EK IKUSARAZTEA ETA HAI EK GIZARTEAN PARTE HARTZEA

- 25.- Transexualitatearen eta transgeneroaren gaineko ikerketa zientifikoak eta azterlanak sustatzea, alderdi ezberdinetan. Gai honi buruzko ikerketa proiektuak sustatu eta finantzatu, unibertsitate eta goi mailako ikerketaren esparruan.**
- 26.- Unibertsitate esparruan, transgenero eta transexualitatearen gaineko prestakuntza sustatu, baita goi mailako hezkuntzan ere.**
- 27.- Transgenero eta transexualen eta beren talde edo ordezkaritza elkarteen partaidetza bultzatu, haiengan eragin zuzena edo zeharra izan dezaketen euskal herri-administrazioen eztabaidetan, hausnarketetan eta erabakietan.**

6. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko foroa, Arartekoak izenburu honekin antolatua: ***Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan***, Vitoria-Gasteiz 2009 (Foro horretako eztabaiden laburpena).

6. EZTABAIDEN ETA ELKARREKIN EGINDAKO HAUSNARKETAREN LABURPENA

LUR MALLEA Kazetaria

Bereizkeria eta ezagutza falta orokorra

Hitz horiek LGTB gazteen errealitatea deskribatzeko gehien erabili ziren bi hitzak izan ziren. Euskadiko edo estatuko egunerokotasuna islatzeaz gain, neurri txikiagoan Suediako egunerokotasuna ere islatzen dute. Hans Ytterberg ombudsmanari eta foroan parte hartu zuten guztiei esker, heterozentrismoaren eta horrek LGTB gazteengan daukan ondorioak desagerrarazteko proposamenak entzun ziren. Hala nola, informazio eta prestakuntza gehiago, gizarte osoaren inplikazioa, zigorrak ez betetzeen aurrean eta aniztasuna barne hartzen duten kuotak. Horiek hausnartutako lan lerroetako batzuk besterik ez dira eta, lehenengo urrats gisa: haurtzarotik bertatik heziketa afektibo eta sexuala bultzatzeko beharra, bai ikastetxean, bai etxean. Hau da, LGTB pertsonak ikasgai guztietan eta egunerokotasunaren alderdi guztietan barneratzea. "Transbertsalitatea" da, eskolako sisteman bideragarritasunari buruzko zenbait zalantza sortu dituen arren. Edonola ere, gazteei zuzendutako hezkuntza oro eskas bihurtzen da telebista eta Internet bezalako baliabideak erabiltzen ez badira. Izan ere, bertan daukate burua eta horrekin egin behar da lan gehien.

Suediara begira

Suedian ez dago hiritartasunerako hezkuntza bezalako ikasgairik baina egongo balitz ezein administraziok ezingo luke ikasgai hori emateari uko egin. "Aukera hori ez dago". Horrela erantzun zuen Hans Ytteberg ombudsmanak Mercedes Sanchez irakaslearen galdera.

Legeak ikastetxeak behartzen ditu sexu eskubide eta askatasunei buruzko politika proaktiboak edukitzera, eta urtero berrikusten dira. Hori dela eta, ikastetxeak jabetzen dira, ikerketa bat egonez gero eta epaileek ongi jardun ez dutela erabakiz gero, zehapena jaso dezaketela eta ikasleari kalte-ordaina ordaindu diezaioketela. "Modu magikoan interesa jartzen hasi ziren. Diruak boterea dauka eta aldaketa izugarria egon da" horixe dio Ytterbergekin Suediako eskolen inplikazioari dagokionez.

Aipatutako herrialde horretan hirurogeiko hamarkadan aniztasun sexualarekiko irakaskuntza positiboa bultzatzen hasi baziren ere, gaur egun LGTB nerabeen artean dauden erasoen kopuruak eta beren buruaz beste egiten dutenenak altuak dira oraindik. Horrek Carme Rabada AMPGILeko ordezkariaren arreta deitu zuen. Ombudsmanarentzat heziketa sexuala ikasgelan jorrazteko moduaren ondorioa da: "asko aldatzen da batetik bestera eta irakaslearen mendekoa da". Gainera, "irakasleen prestakuntza oso kaskarra da". Badakite hainbat gauza daudela egiteke eta helburua argi dago oraindik ere: LGTB pertsonak modu naturalean barneratzen ez dituen ikasgai bat ere ez egotea. "Zergatik ez matematikan?" galdetu zion Ytterbergekin bere buruari. "Zergatik ez eman emakumez osatutako bikote baten adibidea eta beren etxearen maileguagatik ordaindu behar duten portzentajea kalkulatu?".

Gazteen arteko eraso homofoboaren aurrean, antzerako jarduten da Sabadellen eta Suedian. "Fokua erasoaren jasan duen pertsonaren gainean jartzen da eta hura ikastetxez aldatzen, jazarlearen gainean jardun ordez". Baina ombudsmanak, Josep Escartin sindikoari erantzunez, azpimarratu zuen jokamoldeak aldatzen ari direla. Ikastetxe batzuek ordaindu behar izandako kalte-ordainei emandako publizitateak eragina eduki du hainbat ikastetxetan. "Beren plan proaktiboaren kalitatearen hobekuntzan eragina eduki du".

Heziketa afektibo eta sexuala, garatzeke dagoen gaia

Errespetua, esperientziak, osasuna... EHGA Meko Jaime Mendiarentzat heziketa afektibo eta sexualak zer hartu behar duen barne definitzea falta da. Belen Molinuevok argi eta garbi adierazi du: "sexu heziketa Espainian ezereza da eta ez da institutura arte hasten". Iritzi orokorraren arabera, bai ikasleek, bai irakasleek programak eta prestakuntza behar dituzte. "Irakasleak erabat galduta daude" gogorarazi zuen Jose Enrike Brosak, HMG programako arduradunak. Olga Alarconek zera gaineratu zuen "Ez dakite nora jo homofobiagatik bullying kasu baten aurrean" eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila kritikatu zuen: "ez dira arazoaren garrantziaz jabetzen, ezta LGTBk ikasteko dauzkaten zailtasunez ere".

Baina, nola eskaintzen dira programa afektibo eta sexual onak? Horixe mahaigaineratu zuen Ana Alvarezek, orientatzailea eta UGTko kidea. Gehiengoaren ustez, transbertsalitatearen bitartez. Hau da, LGTB aldagaia ikasgai guztietan barneratuz. "Guztia urpetu behar du, bestela ez du ez sakontasunik, ez biderik edukiko" esan zuen Iñigo Iturratek, Bizkaiko Berdintasuneko diputatuak. Horretarako, "ezin dira irakaslearen borondate onaren menpe egon" uste du Mercedes Sanchezek.

Beste parte-hartzaile batzuek transbertsalitatea utopia bezala ikusten dute. "Heziketa afektibo eta sexuala guztion eskuetan utziz gero, azkenean ez du inork jorratuko" kexatu zen Ana Alvarez. Prestakuntza handia behar du irakasleen partetik eta irakasleak ez dira ausartzen ikuspen eta kontzientziario programekin ikastetxeetara joaten diren LGTB elkarteetako kideen tokia hartzera. Horregatik, mendetasun egoeran dauden irakasle izaten jarraituko dute. Jarraitu beharko lukete elkarteek hezitzaileen lana egiten? galdetu zuen Jesus Generelok. "Bai" erantzun zuen berak. "Hori edo ezer ez", gaineratu zuen Enrike Brosak. Administrazioen eta LGTB elkarten arteko lankidetzaren eredu mistoa da guztiek babestu zuten formula.

Bitartean eskola zaharrenean ideia aldatu behar da, irakasleak esku harraraziz ikasleekin hitz egin dezaten eta ulermeneko eremuak lortu ditzaten. Alderdi hori funtsezkoa da EDEX Fundazioko Roberto Floresentzat: "Azken batean, irakaslea da azken hitza duena". Lan nekeza bihurtzen da honakoa ikasleek burua hedabideetan dutenean eta ikastetxean gorputza besterik ez dutenean. Jarraitu beharreko estrategia zabalagoa izan behar da. Fermin Barcelok, Ararteko erakundeko bulegokoak, zera erantsi zuen: "eskola beste agente bat da".

Zer egin daiteke?

- Etxean heterozentrismoa alde batera utzi. Esther Nollak gurasoan hizkuntza eta jokamoldea neutralizatzea proposatu zuen. "Txikienei genero femeninoa zein maskulinoa erabiliz hitz egitea eta genero rola baztertzea euren identitate propioa sortu dezaten". Jakin behar dute etxean diren moduan maitatuko dituztela eta ez da beharrezkoa izango ume homosexualak garaiz antzematea lagundu ahal izateko. Gurasoak, aitona-amonak, emaginak, pediatrik... hezi behar dira (hitzaldiak, mintegiak...) tolerantziatik harago, benetako tratu berdintasuna gauzatu dezaten.
- Internetari dagokionez, eguneratuta egon. Gaur egungo LGTB gazteek informazio gehiena Internetetik hartzen dute. "Ez etxetik, ezta eskolatik ere, askorentzat Internet euren bizitza da" azaldu zuen Jesus Generelok. Garrantzitsua da elkarteek eta erakundeek sarean egiazko informazio segurua daukaten esparruak eskaintzea. Izan ere, LGTBei zuzendutako web orrialdeetan ingurune komertziala eta pornografikoa ohikoa da.
- "Beste maskulinitate" baten eraikuntzan lan egitea. Gaur egungo maskulinitatea matxista izateaz gain, bortitza da eta aurkakotasunean eta baztertua izateko beldurrean oinarritzen da. Jesus Generelok ohartarazi zuen ikasgeletan dagoen homofobiak ez duela eragina soilik "matxoen" nortasunean. "Guztiei kalte egiten die, nerabeei orokorrean". Armairutik irteteko beldurrak "sare arriskutsua" sortu duten pertsonak batzen ditu eta horrek arazoa luzatu besterik ez du egiten, esan zuen Suberri Pascualek. "Isiltasunaren tirania desagerraraztea funtsezkoa da" Hans Ytterbergen aburuz.
- Diru publikoa jasotzen duten enpresei bereizkeria sexualaren aurkako programa exijitzea eta diru-laguntzak jasotzen dituzten kolektiboek euren estatutuaren bereizketaren aurkako jarrera modu zehatzean jaso dezaten eskatzea. Jesus Generelok esan zuen moduan: "helburua LGTBak kontuan hartzea da".
- Aniztasun kuotak. "Ez egotea inolako argitalpenik neskak zein mutilak futboleko jolasten erakusten ez duena, edo bi amaz edo bi aitaz osatutako bikoteak" esan zuen Esther Nollak. Leku guztietan familien aniztasuna irudikatu behar da oinarri gisa.
- LGTB aldagaia aintzat hartzen duten kuoten, ekintza planen, hitzaldien, azterlanen eta baliabideen beharrezko inguruan legeak egiteko politikoen borondate handiagoa. AMPGIL elkarteak Generalitateari joan zen "parte hartu behar duzue" irrimoz bategin. Kataluniako erakundeari zera eskatu zion: sexu eta familia aniztasuna eskola guztietan islatzeko ipuinak eta gida didaktikoak banatzeko ardura bere gain har zezan. Carme Rabadaren hitzetan: "ez da gauza bera guk, elkarte gisa, lan hori egitea".

- Ikastetxeetan irisgarritasun handiagoa egon behar da informazio afektibo eta sexuala barreiatzeko (programak, hitzaldiak...) eta gazteen eta, batez ere, LGTBen bizi eta pentsamendu afektibo eta sexuala ezagutzea ahalbidetuko duten azterlanak egiteko. Estatuan bi azterlan garrantzitsu daude bakarrik eta hirugarren bat martxan dago (Donostia)(1). Jose Enrike Brosak aurreratu duenaren arabera, azken horren emaitzek egoera kritiko berbera islatuko dute. Orain arte datu gutxi zeuden oso eskola eta institutu gutxi irekitzen baitzizkien atak ikertzaileei. Cosladan (Madril) udala izan da ikerketa bat egitea agindu duena eta udalerriko institutueta sartzeari erraztu duena. Salbuespena da. Belen Molinuevok zera adierazi zuen: "hain saila da sartzeari haur eta lehen hezkuntzan! Irakasleek ez dute sexuari buruz hitz egin nahi eta, are gutxiago homosexualitateari buruzko ikerketa bat egitea haurrekin. Irakasleek eta gurasoek sartzeari ahalbidetu behar dute eta, azkenean, hezkuntza sistemak, baina ez digute uzten".
- Lau urtetan zehar, GEHITUren HMG hitzaldien programa Gipuzkoako hainbat zentroetan egon da baina ez du inolako aukerarik eduki eskola erlijiosoetan. Josep Escartinentzat onartezina da, "administrazioak bermatu behar du ikasle guztiek hitzaldi horiek entzuteko aukera daukatela".
- Genero indarkeriaren aurkako lege integralak eskola bakoitzean pertsona bat izendatzea nahi du genero indarkeriaren aurka lan egin dezan. "Eraginkorra izango litzateke, pertsona horrek aniztasun afektibo eta sexualaren alde ere lan egingo balu?", galdetu zion Jesus Generelok Mercedes Sanchez irakasleari. "Beharbada hori da bidea, zentro bakoitzeko orientatzaileekin batera, funtsezko eginkizuna baita haiena"

(1) Argitalpenaren oharra: 2007-2008 ikasturtean zehar, Donostiako zenbait ikastetxetan ikerketa bat burutu zen. Horren helburua gazteek oro har aniztasun afektibo eta sexualaren inguruan zeukaten biziaren ezagutzea zen, Coslada (Madril) eta San Bartolome de Tirajanako (Kanaria Handia) aurrekari jarraiki. Emaitzen artean, aurrekari jarraiki, aipatu daiteke gazteen % 52-% 74 inguruk onartu duela euren eskoletan jarrera homofoboak ikusi dituztela. Gazteen % 4k onartu zuen ikaskideren bat jipoitu izana haren sexu joeragatik eta % 13k baieztatu zuen ikaskideren bat baztertu izana. Jesus Estombak aipatutako datuak. 2009. Un día contra la homofobia, El Diario Vasco, 09.05.17, 32. orrialdea. Vid. <http://www.gehitu.net>

- Zer egin dezakete administrazioek hezkuntza sistematik harago, LGTB elkarteekin hitzarmenak sinatzeaz gain eta harrotasunaren eguna ospatzeaz gain? Hori da Arabako Foru Aldundiko Eloina Mayok ombudsmanari egin zion galdera. "Lehenengo zeregina zerrenda bat egitea da", erantzun zion Ytterbergerek, eta gizarte agente guztiak identifikatzea (polizia, gizarte zerbitzuak, sindikatuak, enpresariak, gurasoen elkarteak..., bai eta bakoitzaren ardura eremua ere. Haiekin eseri eta, LGTB taldeek egindako ekarpenekin batera, garatu beharreko ekintza planak zehaztu. "Gaur egun, Suedian ez dago lan erakunderik, ezta gobernuko agentziarik ere, ez dakiena haiek ere gai horien inguruan erantzukizuna daukatela eta horietako askok planak abiarazi dituzte. Transbertsalitatea poliki-poliki lortzen da, mundu guztia tartean sartuz".

Transexualitatea, baztertuak baztertuen artean

Transexualitateari buruzko ezjakintasun handia azpimarratu da. "Gazteen artean, transexualek homosexualek baino gaitzespen handiagoa pairatu behar dute?", galdetu zuzen Iratxe Herrerok. "Gutziz ezezagunak dira". Haien inguruko guztia "morboz inguratuta dago" eta "gaitzespena ikaragarria da": Horrela ikusten dituzte gazteek transexualak, Belen Molinuevo antropologoak eta Jose Enrike Brosa HMG programako arduradunak ikasgeletan izan duten esperientziaren arabera.

Transexualek ez dakite nora jo eta LGTB elkarteak, eskolak eta osasun zentroak ez daude haiek artatzeko prestatuta. "Transexualei dagokienez, ez dago jarduteko protokolorik", salatu zuen Jesus Generelok. Olga Alarconek euskal administrazioei errieta egin zien: "guztiak joaten dira Madrilera edo Bartzelonara transexualitate prozesuari hasiera ematera edo informazioa eskatzera; hemendik ihes egiten dute". Hori dela eta, Iratxe Herrerok oso beharrezkotzat jo zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila tartean egotea, hormonazioa eta kirurgia bezalako gaiak jorratu ahal izateko.

Larrituta dauden gurasoak AMPGIL elkarte katalanera joan izan dira euren seme-alabak euren generoarekin bat ez datozen rola bereganatu dituztelako. "Ba, utziozu zure semeari genero femeninoan hitz egin nahi badu, Sofia deitzea nahi badu edo sirena izan nahi badu", erantzuten die Esther Nollak, elkarte horretako presidentea. Gazteei hormonazioarekin goiz hasteko aukera mahaigaineratzearen alde daude baina operazioei buruz hitz egiteari uko egiten diote.

7. Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 19koa, transexualak babesteko asmoz, udalaren kirol ekipamenduetan banakako dutexak eta aldagelak jar daitezzen.



Arartekoaren Ebazpena, 2009ko abuztuaren 19koa. Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio kirol ekipamenduetan esku har dezala, zentzuzko denbora tartean, udalerriko kirol instalazio guztiek banakako dutxak eta aldagelak izan ditzaten.

Aurrekariak

1. Transexual talde batek erakunde honetara jo zuen Donostiako udal kirol instalazioetako aldageletan banakako dutxak eta kabinak edukitzea komenigarria dela planteatzeko.

Adierazi zigutenaren arabera, soil-soilik kirol instalazio berriek, hau da, Bentaberriko Kiroldegiak eta Zuhaitzikoak, dituzte banakako aldagelak eta dutxak. Nahiz eta Intxaurrendoko eta Etxadiko instalazio berriek ere ekipamendu hori izango zutela aurreikusi.

Euren anatomia dagokien sexura egokitzeko transexualizatze prozesua hasita zutenez, baina oraindik amaitu gabe, adierazi zuten haientzat traumatikoa eta iraingarria zela aldagelak eta dutxak erabiltzen ari ziren pertsonen aurrean biluzik egon behar izana.

2. Pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legea indarrean jartzeak transexualei erregistroan hasieran egokitu zitzaizen sexua zuzentzea ahalbidetzen die eta baita euren dela sentitzen duten sexuarekin bat datorren izena erabiltzea ere. Hala ere, horretarako ez da beharrezkoa pertsona horrek hasierako sexu organoak kentzeko tratamendu kirurgikoa bete izana eta berresleipeneko organoak eman izana.

Hau da, transexualak, erregistroko zuzenketa egin ondoren eta, hortaz, ondorio guztietarako sexu bat (sexu psikosoziala) eduki arren, baliteke anatomian sexu biologikoaren karaktereak izatea, sexu berresleipena oraindik egin ez zaielako.





Prozesu horiek oso luze jotzen dute, urteak izan ohi dira, eta ez dute zertan berresleipen genitalarekin amaitu. Arazoak, bereziki, transexualizatze prozesuek dirauten denboran gertatu ohi dira eta, nahi gabe, espazio komun eta ireki berak erabiltzean sortzen dira.

3. Kirola egiteak egoera fisikoa eta, nola ez, autoestimua berreskuratzen laguntzen duenez, Donostiako Udalari eskatu genion udaleko kiroldegi guztietan pixkanaka gutxienerako zerbitzu osagarri horiek jar zitzala.

Gaur egun badaude aldageletako gune komunetan aldatu edo dutxatu nahi ez duten pertsonak, erlijioagatik, benetako konplexu larriak dituztelako, ebakuntza kirurgikoak izan dituztelako (mastektomia egin dieten emakumeak, oraindik bularra berreraikitzeke kirurgiarik izan ez dutenak...), adinagatik lotsaren beste ikusmolde zorrotzagoen pean hezi direlako edo, besterik gabe, euren eremu intimoa babestu nahi dutelako. Erabiltzaile horientzat, eta erabiltzaile potentzialentzat ere, onuragarria izango litzateke, pixkanaka, udaleko kiroldegi guztietan banakako dutxak eta kabinak jartzea.

4. Erantzunean, Kiroletako Udal Patronatuak berretsi egin zituen erakunde honek txosten eskaeran aurreratu zituen datuak. Datu horien arabera, Bentaberriko eta Zuhaitziko kiroldegiek bakarrik dituzte banakako aldagelak eta dutxak aldagela orokorren eremuan, nola gizonezkoentzat hala emakumezkoentzat direnetan. Hala ere, aurreikusita zegoen Etxadiko eta Intxaurrendoko kiroldegi berriek ekipamendu hori izango zutela.

Banakako ekipamendurik ez zuten gainontzeko udal kiroldegiei dagokienez, Kiroletako Udal Patronatuak, konponbide gisa, aldagela orokorren eremutik kanpo zeuden aldagelak/dutxak erabiltzea proposatu zuen, erabilera baimenpekoa izanik.

5. Kiroletako Udal Patronatuari adierazi genion arazoa konpontzeko euskarria ez zela izan behar ezgaitasunen bat duten pertsonen eurentzat gorde diren espazioak erabiltzeko dituzten aukerei muga gehiago jartzea.

Horrez gain, transexualei dagokienez, Kiroletako Udal Patronatuak proposatu zuenak, gure ustez, badu beste eragozpen bat. Izan ere, aldagela horietan sartzeko baimena ematea beharrezkoa denez, transexualek, nahitaez, beren





genero nortasuna adierazi behar zieten kiroldetako langileei. Aukera hori ez zen egokia lortu nahi zen eta lortu nahi den helburuarentzat, pertsonen pribatutasuna eta intimitatea babestea, alegia.

6. Kiroletako Udal Patronatuak eman zigun bigarren erantzunean adierazi zuen erakunde honek egindako eskaera ez zitzaiola egokia iruditzen. Izan ere, bere ustez, hiriko kiroldetako gehienek ematen zuten banakako aldagelak eta dutxak erabiltzeko aukera. Adierazi zuen, zehazki, Altza, Bidebieta, Bentaberri, Zuhaitzi, Paco Yoldi Igerilekuak eta Egiako Kiroldetaketan bazeudela edonork, aurretik baimenik eskatu gabe, erabil zitzakeen banakako aldagelak. Banakako dutxa-aldagela horiek ez ziren ezgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako eremuak, sartzen errazak ziren eremuak baizik, ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrak asetzeko egokituak.

Gainera, patronatuak azaldu zuen sartzen errazak ziren aldagela horiek ez zirela asko erabiltzen eta, hortaz, eguneroko erabilerak argi uzten zuela ez zegoela inolako arazorik erabilera hori bateragarri egiteko.

Nolanahi ere, aurrez baimena behar duten banakako aldagelei dagokienez, argi geratu zen instalazio horiek profesionalek erabiltzeko zirela: arbitroek, begiraleek, etab.

Erreklamazio hau ikusita, kexan eta Donostiako Udaleko Kiroletako Udal Patronatuak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Transexualitatea gizarteko errealitatea da eta botere publikoak ezin gara bazter geratu.

Transexuala den pertsonak barruan berea dela sentitzen duen sexua izanik bizi eta moldatu nahi du gizartean. Horrek, askotan, anatomia aldatzeko nahi iraunkorra dakar berekin, gorputza eta berea dela sentitzen duen sexua bat etor daitezten.

2007ko martxoaren 17an indarrean jarri zen pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duen martxoaren



15eko 3/2007 Legea. Arau horren 1. artikulua adierazten du nazionalitate espainiarra duen eta adin nagusikoa den pertsona orok sexuari buruz erregistroan egiten den aipamena zuzentzeko eskaera egin dezakeela, horretarako gai bada. Horrek, besteak beste, izena aldatzea ekartzen du.

Zuzenketa hori adosteko, eskaera egin duen pertsonak honakoa egiaztatu behar du:

- a. Genero disforia diagnostikatu diotela; medikuaren edo psikologo klinikoaren txostenaren bidez egiaztatu behar da. Txosten horrek bi gai aipatu behar ditu:
 - Hasieran erregistratutako sexu morfologiko edo genero fisiologikoaren eta eskatzaileak sentitzen duen genero nortasun edo sexu psikosozialaren artean disonantzia egoera eta, horrez gain, disonantzia hori egonkorra eta iraunkorra izatea.
 - Disonantzia hori edukitzean eragin erabakigarria duen nortasun nahasmendurik ez izatea.
- b. Eskatutako sexuari dagozkion ezaugarri fisikoari egokitzeko gutxienez bi urtetan zehar medikuntza tratamendua jaso duela. Hori, era berean, tratamendua zuzendu duen medikuak egindako txostenaren bidez egiaztatu behar da eta, halakorik ez balego, auzitegiko mediku berezitu baten txostenaren bidez.

Kontuan izan behar da, gainera, erregistroko zuzenketa onartzeko ez dela beharrezkoa (4.2 artikulua) medikuntza tratamenduaren barruan sexu berresleipen kirurgia egin izana, ezta medikuntza tratamendua eduki izana ere, tratamendua egitea eta egoera horren egiaztatari medikoa ematea eragozten duten osasun edo adin arazoak daudenean.

Zuzenketa onartzen duen ebazpenak ondorio osagarriak ditu Erregistro Zibilean jasotzen den unetik (5.1) eta pertsona horri bere egoera berriak dituen eskubide guztiez gozatzea ahalbidetzen dio (5.2).

2. Genero fisiologikoa sexu psikosozialera egokitzeko prozesuak sufrimendu sakona dakar hori bizitzen duten pertsonentzat eta gizartean bereizkeria eta gaitzespena sortzen dute. Horrek, zalantzarik gabe, pertsona hauen eguneroko bizitza asko okertzen du. Horregatik, herri administrazioek euren politikan



bultzada berezi bat egin behar dute eta transexualek beren eskubideez behar bezala gozatzea ekiditen duten oztopoak baztertu behar dituzte.

Erakunde honek antzeman du kiroldegietan bereziki estuak diren egoerak sortzen direla. Pertsona transexualak erasotzera ere iritsi dira. Horrek beren duintasuna gogor erasotzen du eta, zalantzarik gabe, tratu hori iraingarria eta onartezina da. Horregatik, herri administrazioek esku artean dituzten bitarteko guztiak jarri behar dituzte egoera horiek ekiditeko.

Honakoa aintzat hartu behar dugu: “ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea”(Espainiako Konstituzioaren 10.1 art.).

Konstituzioko agindu hori, doktrinak kalifikatu moduan, sistema juridikoaren euskarria da eta Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikularekin zerikusi estua du. Azken horrek, botere publiko guztiei funtsezko betebeharrak ezartzen die: *“inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomi, kultur eta gizarte bizitzan ere”*.

Pertsonak beren eskubideez behar bezala gozatzea ekiditen duten oztopoak kentzeko betebeharrak gizarte bizitzako eremu guztietara zabaltzen da, baita ere, nola ez, aisia eta kirola berdintasuneko baldintzekin eta norbanakoaren duintasuna errespetatuz praktikatzea.

3. Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua hau aldarrikatzen du: *“ohorerako eskubidea, norbere eta familiaren intimitaterako eskubidea eta norbere irudirako eskubidea bermatuko dira”*.

Ez da batere erraza norbere eta familiaren intimitaterako eskubidea babestek barne hartzen duena mugatzea. Baina, doktrinak dioten moduan, esan dezakegu norbere eta familiaren intimitatea zera dela: *“norbere eta familiaren gertu-gertuko inguruneak egiten dituen jardueren taldearekiko pertsona bati ematen zaion boterea; horri esker, pertsona arrotzak tartean sartzea eta interesdunari berak nahi ez duen publizitatea ematea ekidin dezake”*.





Horri dagokionez, azpimarratu behar da intimitateak, funtsean norbanakoaren datuak babesteaz gain, gorputzaren intimitatea ere barne hartzen duela, gorputzari buruzko ikerketa orok eraginik izan gabe. Horrela, uler daiteke babestuta dagoela "lotsa sentimendua, komunitateko kulturaren erroretako irizpideen eta balioen araberakoa denean". (Konstituzio Auzitegiaren 57/1994 Epaia) ¹

Gorputz intimitatea babesteak botere publikoek kirol instalazioetako ekipamendua erabili ahal izateko bitartekoak eman ditzatela eskatzen du; horrela, aukerazkoa izango da espazio komun eta irekietan dutzatzea eta aldatzea edo banakako eremuetara jotzea.

4. Gure ustez oso positiboa da Donostiako Udalak, gogoeta prozesuaren ondoren, ekipamendu eta instalazio berrietako aldageletan banakako dutxak eta aldatzeko guneak jarri izana. Azken hamarkadako joera ekipamendu publiko askotako dutxak eta aldagelak espazio irekiak eta erabilera komuna dutenak soilik izatea izan da, baina joera hori aldatu egin da. Hala ere, adierazi dugun moduan, oraindik amaitu ez den prozesua da, lanean jarraitu beharra dago.

Kontuan hartu behar da udaleko kirol instalazioak erabiltzen dituzten pertsonak ez dutela gain hartu behar beren pribatutasuna eragiten duen egoera hau. Izan ere, euren nortasuna garatzea eta duintasuna, intimitatea eta irudia errespetatzea ahalbidetzen duen baldintzetan ekipamendu horiek erabiltzeko eskubideak pertsona horiek babesten ditu.

Hortaz, banakako dutxak eta aldagelak jartzeko herritarrek egin duten eskaera arrazoizkoa da. Horregatik, gure ustez beharrezkoa da banakako dutxak eta aldagelak jartzeko prozesua, pixkanaka baina etengabe, udaleko kirol ekipamendu guztietara zabaltzea.

5. Kiroletako Udal Patronatuak proposatu duen konponbideari dagokionez, adierazi behar dugu ez dela egokia.

Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, 7. artikuluan hiri ingurunerako, espazio publikoetarako eta erabilera publikoak

¹ ALZAGA VILLAAMIL, Oscar (zuz) *Comentarios a la Constitución Española de 1978. II. Liburukia*. Gorte Nagusiak, Editoriales de Derecho Reunidas Argitaletxea (Madril), 1997. 469. or. ISBN: 84-7130-874-6 (II. Liburukia)



izango duten eraikinetarako hainbat erreserba zehazten du. Zehatzago esanda, 3. atalean hau ezartzen du: "Erabilera publikoa duten edota jendearentzat zabalik dauden eraikinetan eta espazio publikoetan dauden komun, aldagela, dutxa eta horrelako beste elementuetan sexu bakoitzarentzat zatiko edo hamarretik elementu bat gordeko da eta mugikortasun urriko pertsonak erabiltzeko behar bezala egokituko da. Eraikinei dagokienez, aipatutako proportzioa pilatutako elementuen arabera aplikatuko da".

Aurreikuspen hori Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legearen II. Kapituluak jasotzen du. Kapitulu horren izenburuak asko esan nahi du: *Erreserbak*; hortaz, onartu behar dugu espazio horiek, printzipioz, ez direla banatzeko asmoz sortu.

Administrazioek eta erakundeok ahalegina egiten lehenak izan behar dugu ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrak modu egokian asetzeko sortu diren ekipamenduen erabilera errespetatzen eta pertsona horien bizitza autonomia hobetzen.

Ahalegin hori pixkanaka gauzatuz doa eta horri esker, herritarrak gizartean kontzientzia hartzen hasi dira ezgaitasunen bat duten pertsonentzako, aniztasun funtzionalik ez dagoenean, egin diren ekipamenduak erabiltzea gaitzesteko.

Bestalde, begirale, arbitro, etab. bezalako profesionalek erabiltzeko prestatuta dauden espazioetara sartzeko erabiltzaileek eragiten dien arazoa zentroetako langileei azaldu beharrak ez du arazoa konpontzen. Horrez gain, transexualen kasuan zehazki, konponbide horrek zuzenean beren intimitatea erasoko luke, eta baita beren transexualizatzeko prozesua isilean mantentzeko bermea ematen dien eskubidea ere.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

15/2009 GOMENDIOA, abuztuaren 19koa, Donostiako Udalari egina

Kirol ekipamenduetan esku har dezala, zentzuzko denbora tartean, udalerriko kirol instalazio guztiek banakako dutxak eta aldagelak izan ditzaten.

8. Homosexualen duintasuna. *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia* izenburuko liburuaren laburpena, Vitoria-Gasteiz 2009. Arartekoak 2005eko uda ikastaroa zela-eta argitaratu zuen liburu hori.

**FAMILIA BERRIAK ETA BERDINTASUN
PRINTZIOA: EZTABAIDA IREKIA**

**NUEVAS FAMILIAS Y PRINCIPIO DE
IGUALDAD: UN DEBATE ABIERTO**

**XXIV. Uda Ikastaroak Donostian /
XXIV Cursos de Verano en San Sebastián**

**XVII. Europar Ikastaroak - UPV/EHU 2005 /
XVII Cursos Europeos - UPV/EHU 2005**

**“Giza eskubideei buruzko jardunaldiak” bilduma 9. zka. /
Colección “Jornadas sobre derechos humanos” nº 9**

ararteko

AURKEZPENA/PRESENTACIÓN

**HOMOSEXUALEN DUINTASUNA /
LA DIGNIDAD DE LAS PERSONAS HOMOSEXUALES**



“Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla (...) 1. *artikulua*. “Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute” 2.1. *artikulua*. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. Hala dio Nazio Batuen batzar nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak.

2008an Deklarazio horren 60. urteurrena ospatu genuen, eta zoritxarrez, ezin dugu esan gure planetan gizakien duintasuna unibertsalki errespetatzen denik. Deklarazioaren testu ederraren eta giza eskubideetan espezializatutako doktrina eta jurisprudentziak eraikitakoaren arabera, duintasun gisa ulertu behar badugu, pertsonak autodeterminatzeko eta bere bizitza garatzeko duen askatasuna gisa, bere izaeraren ezaugarrien eta nahien arabera, bizitzeko gutxieneko baldintza materialen babesean eta elkarrekiko errespetu inguruan; berriz ere diot, definizio horri eusten badiogu, bistakoa da giza eskubideen alde lan egiten dugunok lan eskerga daukagula aurretik. Izan ere, ezin

“Considerando que la libertad, la justicia y la paz en el mundo tienen por base el reconocimiento de la dignidad intrínseca y de los derechos iguales e inalienables de todos los miembros de la familia humana (...) *Artículo 1*: Todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos y, dotados como están de razón y conciencia, deben comportarse fraternalmente los unos con los otros. *Artículo 2.1*. Toda persona tiene todos los derechos y libertades proclamados en esta Declaración, sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquier otra condición.” Así reza la Declaración Universal de los Derechos Humanos aprobada el 10 de diciembre de 1948 por la Asamblea General de las Naciones Unidas.

En 2008 celebramos el 60 aniversario de esta Declaración sin que, desgraciadamente, podamos constatar que la dignidad de los seres humanos sea universalmente respetada en nuestro planeta. Si por dignidad hemos de entender, a la luz del hermoso texto de la Declaración y de lo construido por la doctrina y por la jurisprudencia especializada en derechos humanos, la libertad de la persona para autodeterminarse y para realizarse en la vida conforme a sus características personales y a su voluntad, en un contexto de respeto mutuo y de salvaguarda de las condiciones materiales mínimas de vida; si nos atenemos, repito, a esa definición, resulta evidente que quienes trabajamos en pro de los derechos humanos tenemos aún

dugu arbuiatu, ehunka, agian milaka miloi gizakik ez dituztela pertsona gisa dituzten gutxieneko duintasun atalaseak bermatuta. *Ombudsman* edo herriaren defendatzaileak erakunde berme emaileak gara eta pertsonen eskubideen osasuna zaintzeko eginkizun generikoa egokitu zaigu. Horregatik, ez dugu alde batera utzi behar oinarrizko-oinarrizko eskubidea den duintasuna babestea helburu duten ekintzak burutzeari, izan ere hori hartzen dute oinarri gainontzeko giza eskubide oinarrizkoenak. Horiek Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekiko errespetuaren oinarri etikoaren inguruan antolatzen den gizartearen halako "DNA moral" modukoa osatu beharko lukete.

Espainia albiste gai izan zen 2005ean, bi emakumek edo bi gizonek osatutako bikoteei ezkontzeko eskubidea aitortu zitzaielako. Aipatutako legearen erreformaren inguruan egondako eztabaidatik azpimarratu nahi dugu, haren aurka zeuden politikako eta gizartearen sektoreek berek ere, gehienek, bereizkeria, eskarnio eta estigmatizazio mendeen bukaera puntu jarri behar zitzaieela agertu zutela. Indarreen zeuden arau moral eta legezkoez izaera bereizlearen ondorioz, sufritu zituzten homosexualen, lehen aipatutakoak. Aipatutako alderdiak matrimonioaren erakundea handitzearen aurka bazeuden ere, legezko *ad hoc* irudiak ahalbidetzearen alde agertu ziren, gay eta lesbianen duintasunaren eta berdintasunaren errekonozimenduari erantzun egokia eman diezaieten.

un arduo trabajo por delante porque no podemos obviar el admitir que cientos, quizás miles, de millones de seres humanos no tienen garantizados los umbrales mínimos de su dignidad como persona. Los *ombudsmen* o defensores del pueblo somos instituciones garantistas que tenemos asignada la función genérica de velar por la buena salud de los derechos de las personas y, por ello, no debemos sustraernos a llevar a cabo aquellas actuaciones que tengan por objeto la protección del derecho fundamental más básico, la dignidad, sobre el que pivotan en buena medida el resto de los derechos más elementales del ser humano, aquellos que debieran constituir una suerte de "ADN moral" de una sociedad que se organiza sobre la base ética del respeto a la Declaración Universal de los Derechos Humanos.

España fue noticia, en junio de 2005, por el reconocimiento a las parejas constituidas por dos mujeres o dos hombres del derecho a contraer matrimonio. Lo que nos interesa destacar del debate habido en torno a la mentada reforma legal es que hasta los sectores políticos y sociales que se opusieron a ella admitían, en su mayoría, la necesidad de poner fin a siglos de discriminación, de escarnio y de estigmatización que sufrieron las personas de orientación homosexual por amar de forma diferente a la establecida con carácter exclusivo y excluyente por las normas morales y legales vigentes. Aunque los citados sectores se oponían a la ampliación de la institución matrimonial, se mostraban favorables a la habilitación de figuras legales *ad hoc* que dieran una respuesta de mínimos al debido reconocimiento de la dignidad y de la igualdad de las personas gays y lesbianas.

Duintasunak, askatasunak eta berdintasunak eskubideen hirukia osatzen dute eta zaila da horiek banatzea eta zatitzea, horregatik adierazi nahiko nuke ehunka mila homosexualiek bizi duten errealtatea ankerra dela benetan. Beren pasio maitasunaren jatorria ezkutatu, ito eta autozentsuratu behar dute, horrenbestez, giza eskubideen defendatzaileen-tzako lehentasunezkoa da, botere publikoen aurrean homofobia ezabatzekeo politika publikoak burutzea. Aintzat har bedi, onargarria den nazioarteko Amnistia Internazionala erakundearen arabera, badirela oraindik homosexualitatea zigortzen duten herrialdeak. Beste askotan, homofobiaren ideologia eta baloreak bizirik diraute gizartearen alderdi zabal-tan, baita estamentu ofizialetan ere. Gizarte bazterkeria eta errefusa, torturak eta legez kanpoko atxiloketak, baita erasoaldia eta isekak eragiten dituzte homosexualen, transexualen edo transgeneroen aurka, eta muturreko kasuetan jipoi basatiak eta hilketak egon daitezke. Horrenbestez, nahitaezkoa da herriaren defendatzaileak, *ombudsmanak*, zabal-zabal agertzea neurri handi batean ezkutu-tuan darraien errealtatearen aurrean (homosexualitatearen egoera ezkutagarria baita), baina sufrimendu eta egoera dramatiko askorekin engainatuta dago, eta nolahi ere, gure herrikide askoren duintasuna den oinarritzko eskubidearen zapalketa dakar.

Gizadiaren aurrera pausoz hitz egiten dugunean, giza eskubideen ikuspuntutik, hau da Nazio Batuen estatu kide guztiak lotzen dituen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertuala abiapuntu hartuta, eskubideak zabaldu eta sakontzeari baino

Si bien la dignidad, la libertad y la igualdad constituyen un trío de derechos difícilmente escindibles y parcelables, quisiera significar que es tan atroz la realidad que viven cientos de miles de seres humanos homosexuales, obligados a ocultar, a reprimir y a autocensurar la naturaleza de su amor pasional, que resulta prioritario para los defensores de los derechos humanos impulsar ante los poderes públicos la realización de políticas activas tendentes a la eliminación de la homofobia. Téngase en cuenta que, según los informes anuales de la respetada organización Amnistía Internacional, todavía hay países donde la homosexualidad está penalizada, y, en otros muchos, la ideología y los valores homofóbicos, aún vivos en amplios sectores sociales y en estamentos oficiales, producen exclusión y rechazo social, torturas y detenciones ilegales, así como agresiones y vejaciones, contra personas de orientación homosexual o de identidad transexual o transgénero que, en casos extremos, pueden llegar a brutales palizas y asesinatos. Por consiguiente, resulta obligado que las defensorías del pueblo, los *ombudsman*, se abran de par en par ante una realidad que permanece en buena medida oculta (porque la circunstancia homosexual se puede ocultar) pero que está trufada de mucho sufrimiento, de situaciones dramáticas y, en cualquier caso, supone una conculcación permanente del derecho fundamental a la dignidad de muchos de nuestros conciudadanos.

Cuando hablamos de avance de la humanidad, desde una perspectiva de derechos humanos, es decir partiendo de la Declaración Universal de los Derechos Humanos que vincula a todos los países miembros de las Naciones Unidas, no podemos refe-

ezin diogu erreferentzia egin, pertsona guztien duintasunarekiko errespetu handiago izango duten eta inklusiboagoak izango diren demokrazietara bideratuko gaituztenak. Izan dezagun gogoan, Deklarazioa onartu zenean afroamerikarren eta emakumeen egoera negargarria zela. Zorionez, talde horien bien egoerak nabarmenki egin dute hobera, neurri handi batean, giza eskubideen aldeko erakundeen lan nekaezinari eskerrak. Azken horiek, egun, nahitaez sartu beharko lukete beren agendetan homosexualak edo transexualak diren pertsonen duintasunaren defentsa.

Defentsa horren zati gisa, Arartekoaren erakundeak, UPV/EHUko Udako Ikastaroen barruan, -1997az geroztik egonkortasunez parte hartzen du bertan-, *Familia berriak eta berdintasun printzipioa. Eztabaida irekia* jardunaldiak antolatu zituen Donostian, 2005eko uztailaren 1ean. Argitalpen honetan honakoen txostenak jaso dira: Marie Digoix, Institut National d'Études Démographiques (Frantzia); Clara I. Asua, UPV/EHUko Zuzenbide Zibileko irakaslea; María Luisa Aguirreche, Ararteko erakundearen lesbiana, gay, transexual eta bisexualei Lehentasunezko Arreta emateko Taldearen koordinatzailea; Kolobike Mujika, Gehituko koordinatzailea, Euskadiko Herriko Gay, Lesbiana, Transexual eta Bisexualen Elkarte; María Ángeles Barrere, UPV/EHUko Zuzenbidearen Filosofiaren irakaslea, baita Arartekoaren hitzaldia ere. Horiek guztiak, ikuspuntu juridiko, soziojuridiko eta sozialetik, berdintasun juridikoa testuetan eta ekintzetan errespetatzearen erronka dute hizpide. Sexu orientazio eta identitateen

rinos más que a una continua ampliación y profundización de derechos que conduzca a democracias cada vez más inclusivas y más respetuosas con la dignidad de todas las personas. Recordemos que cuando se aprobó la Declaración, la situación de la dignidad de los afroamericanos y de las mujeres era deplorable y, afortunadamente, se han producido avances notables en lo relativo a los dos colectivos referidos, merced, en gran parte, a la incansable labor de las instituciones pro derechos humanos que, en el momento presente, deberían incorporar inexcusablemente a sus agendas la defensa de la dignidad de las personas de orientación homosexual o de identidad transexual.

Como parte de esta defensa, la Institución del Ararteko promovió, dentro de los Cursos de Verano de la UPV/EHU, en los que colabora establemente desde 1997, la Jornada titulada *Nuevas familias y principio de igualdad: Un debate abierto*, celebrada en Donostia-San Sebastián, el 1 de julio de 2005. En esta publicación se recogen las ponencias de Marie Digoix, investigadora del Institut National d'Études Démographiques (Francia); Clara I. Asua, profesora de Derecho Civil de la UPV/EHU; M^a Luisa Aguirreche, coordinadora del Colectivo de Atención Preferente de personas lesbianas, gays, transexuales y bisexuales de la Institución del Ararteko; Koldobike Mujika, coordinadora de Gehitu, asociación de lesbianas, gays, transexuales y bisexuales de Euskadi; M^a Ángeles Barrère, profesora de Filosofía del Derecho de la UPV/EHU; así como la propia intervención del Ararteko. Todas ellas abordan, desde perspectivas jurídicas, sociojurídicas y sociales, el reto de respetar la igualdad jurídica, en los tex-

aniztasunetik eta giza eskubideak bete-
tzearen koordinatuen barruan. Ikuspegi
diakronikotik, Europako testuinguruan be-
hintzat, balantzea itzaropentsua da, baina
bukatu gabe dago.

Vitoria-Gasteiz,
2005eko uztaila

tos y en la acción, desde la diversidad
de orientaciones e identidades sexuales,
dentro de las coordenadas de la realiza-
ción de los derechos humanos. En una
perspectiva diacrónica, al menos en el
contexto europeo, el balance resulta es-
peranzador, si bien inacabado.

Vitoria-Gasteiz,
julio de 2005

Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

9. Euskadiko lesbianen ikusgaitasunari eta partaidetzari buruzko ondorioak. Arartekoak argitaratutako liburu honen laburpena: *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*. Egilea: Inmaculada Mujika Flores, Vitoria-Gasteiz, 2007.

ONDORIOAK

Emakume lesbianentzat ikusgai izatea ez da erraza eta ahalegin eskerga egin behar dute bizitzan dauzkaten oztopo ugariak (beldurrak, lotsak, erruduntasunak, desberdin, arraro edo ezohiko sentitzea, bakardadea, isiltasuna eta homofobia barneratua) aurre egin eta gainditu behar dituzte "ez naiz heterosexuala, lesbiana naiz" esateko gai izan arte. Oztopo horiek beste emakumeenganako erakarpena sentitzen hasten diren unetik aurkitzen dituzten aurreiritzien ondorio dira.

Lesbianismoaren definizio estereotipatuetatik askatzeak eta gizarteak ezarritako nortasun urritua berreskuratzeak prozesu luze eta konplexuetara daramatzate euren burua lesbiana onartu eta izaera hori ikusgai egin ahal izateko. Emakume lesbiana guztiak, zein ere den adina edo gizarte posizioa, igarotzen dira prozesu horietatik.

Lege erreforma lortu berriek "berdintasunaren lilura" sortu dute, eta gizarte eragileek eta gizarteak orokorrean lesbofobiaren ondorioak txikiagotzeko duten jarrera azalduko luke. Jarrera hori lege eta gizarte aldaketan artean sortzen den lotura zuzenetik dator, pentsatu ohi baita, lege berdintasuna lortu bada, gizarte berdintasuna ere lortu dela. Horrela, uste izaten da lesbiana izateak orain ez duela gatazkarik sortzen. Pentsamolde horrek sexu aukerak edo joerak eragindako gizarte benetako bereizkeria eta bazterkeria egoerak agerian uztea zaildu eta ikusgaitasunak gizarte eta politika esanahirik ez izatea eragiten du; horrela, norberaren arazo bihurtzen da eta dena dago konponduta emakumeak bere burua lesbiana onartzen badu.

Alderdi hori lesbianen onarpen eta ikusgaitasun prozesuek duten izaera pribatu eta klandestinoan islatzen da; alde batetik, prozesu horiek ezinezko bihurtzen dute lesbianen zoriona euren bizitzan zati handi batean, arazo psikologiko ugari sortzen dizkietelako eta, bestetik, ez dute eztabaidarik ez gizarte alarmerik sortzen, ez zaizkielako ematen benetan dauzkaten garrantzia eta dimentsio politikoa. Hezkuntzan, politikan, elkarteetan eta laguntza zerbitzuetan diharduten gizarte eragileek prozesu horiek, norberaren dimentsioan ez ezik, jabekuntzari, gizarte arrakastari eta historikoki emakumeei euren sexualtasunaren jabe izatea galarazi dieten oztopo heterosexistak gainditzeari dagokienez ere baloratu behar lituzkete. Horrela, ikusgaitasun ekintzak heterosexueltasuna lesbofobiaren eta sexismoaren bidez bere boterea darabilen eragile menderatzaile agertzen den testuinguruetan gauzatzen direla kontuan hartuta, lesbianen ikusgaitasunik eza eragiten duten egitate maiz zoliei antzematen hasi ahalko zaie.

Ikusgaitasuna erreferente historikoek, komunikabideek, esparru publikoak, gizartearen sexualtasunari buruzko onarpenak, politika eta ekonomia botereak elikatzen dute eta, egun, alderdi horiek guztiek defizita dakarte emakumeentzat. Horrela, garrantzitsua da kontuan hartzea lesbianak ez daudela gayen gizarte, politika ekonomia eta sexu plano berean, eta horrek *lesbianek euren pareko gizonezkoen aldean gizarte ikusgaitasun defizit handia izatea* dakar. Beraz, *lesbianen errealitatea gayenen aldean kualitatiboki desberdintzat jo behar da eta, ondorioz, ezinbestekoa da desberdintasun horretan ikusi, aztertu eta baloratzea*. Bereizketa hori egitea funtsezkoa da emakume lesbianen ikusgaitasuna eta gizarte parte hartzea sustatu nahi duten politikak planifikatu eta

abiatzeko, gay eta lesbianak "armairutik irteteko" bermeak dauzkatenean ateratzen badira ere, orain arte, gizonezkoek emakumeek baino erraztasun handiagoak dauzkatelako gizarte, ekonomia eta politika laguntzak lortzeari dagokionez.

Bestalde, kontuan hartu behar da subjektu juridiko onartzeari dagokionez gizonek eta emakumeek ibilbide historiko desberdina izan dutela. Onarpen horrek emakumeentzat ozta-ozta ditu berrogeita hamar urte, eta lesbianentzat ikusgaitasunak duen esanahia baldintzatu du: historian, ez onerako ez txarrerako, ez izatea, lesbofobiaren aurreiritziei eta estereotipoei aurre egiteko zailtasun itzelak eta gizarte talde giza erantzun publikoa emateko aukera urriak.

Lesbianen ikusgaitasunak daukan oztopo handia da emakumeei emandako erantzukizun handiagoa da, etxeko lanei, familiari eta zaintzei dagokienez. Gehiegizko erantzukizun horrek ondorio oso garrantzitsu bi ditu sexualtasun lesbiana garatzeko: 1) emakumeek besteen interesen arabera jokatzeko duten erraztasuna, euren ongizateari, intimitateari eta atsegin sexualaren bilaketari uko eginez; 2) emakumeek aisiarako erabilgarri izaten duten denbora oso urria, ezinbesteko denbora harreman afektibo eta sexualak eratzeko. Kontu horiek ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula eta batez ere seme-alabak dauzkaten lesbiana heldu, ezkondu, banandu edo dibortziatei eragiten diete. Alderdi horiek kontuan hartu behar lirateke emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak planifikatzen direnean, lesbianen ikusgaitasun defizita emakumeen berariazko bereizkeria egoerekin integratuz. Ona litzateke emakumeen eta gizonen arteko berdintasun planek edota genero desberdintasunak ezabatzeko beste edozein proposamenek –erakunde publikoek zein pribatuek egindakoak izan- euren ekintzen artean emakume lesbiana buruzko berariazko aipamenak sartzea, sentsibilizatzeko eta jarrera lesbofobikoak ezabatzeko xedez.

Lesbianak askoz ikusgaiago dira eremu pribatuan publikoan baino. Horrela, ikusgaitasuna familian eta lagunartean zabalagoa da eta hobeto maneiatzen da lan munduan, auzoan, kalean, komunikabideetan, politikan, enpresa munduan... baino. Lesbianen ikusgaitasun defizita oso esanguratsua da esparru publikoan, eta horren ondorioz ez dago emakumerik lesbianismoaren eta haren aldarrikapenen ikurra hartzeko prest, besteak beste, lesbianek eurek sentitzen dutelako euren lesbianismoa esparru guztiz pribatukoa dela.

Lesbianismoaren pertzepzio hain pribatu horren jatorria emakumeek sexualtasunari buruz jasotako hezkuntzan dago, barru-barruan, isilean eta hura arreta gune bihurtu barik bizitzen irakasten zaielako; horregatik, ez zaie erraza gertatzen gai sexualak publiko egitea. Bestalde, gizarte ereduak onargarriago bihurtzen du gizonezkoek sexu desirak eta sentipenak bizitzea eta kanporatzea eta horrek gizon homosexualen ikusgaitasuna indartzen du, nortasun sexualaren garapenean prozesu azkarragoa ahalbidetzen duelako. Gayek daukaten sexualtasunaren gizarte onarpen hori ez daukate oraindik lesbianek eta, beraz, haientzat ikusgaitasuna eta nortasun lesbikoaren garapena zailagoak dira. Euren lesbianismoaz jendaurrean hitz egiten duten emakumeen proportzioa ez da gizarte eta lege aurrerapenen neurrian hazi. Ezin daiteke esan esparru publikoan lesbianen ikusgaitasunak, gizarte egoeren kopuruan eta aniztasunean, gayek lortutakoa erdiesten duenik.

Lesbianismoaren gizarte ikusgaitasunean oso nabarmena da gizarte, ekonomia, kultura eta politika eskalan goiko postuetara iristen den emakumerik ez egotea. Honakoak dira halakorik ez izatearen arrazoiak: 1) lesbianismoa oraindik gizartean estigmatizatuegi dago; 2) zuzendaritza edo lidergo eginkizun batzuk egiteko sinesgarritasuna galtzeko beldurra emakumea lesbiana dena ezaguna egingo balitz; 3) alderdi bakar batek, lesbiana izateak, norberaren lorpenak, ahalmenak eta gaitasunak itzaltzeko beldurra; 4) bere jarduera esparruetatik lesbianismoa publikoki aldarrikatzeari ez zaio garrantzitsua irizten; 5) sexualtasunari buruzko gaiak ikuspegi guztiz pertsonaltzat sumatzen dira.

Lesbianismoa normaltzeko eguneroko eremu pertsonaletan lesbianen ikusgaitasun ekintzak garrantzitsuak eta baliotsuak izan arren, ez dute ikusgaitasun publiko eta politikoagoko ekimena hartzen dutenen ekintzen garrantzi bera. Lesbianek orokorrean, eta elkarteetan antolatzen direnek bereziki, sakonki aztertu behar dute gaia, ikusgaitasuna dekretuz inposatu eta lortzen ez bada ere, lesbiana bakoitzak besteekin erantzukizun eta elkartasun kontzientzia handiagoa izatea eskatzen duela ematen baitu, gizarteak jakin dezan lesbianismoa eremu guztietan dela. Era berean, kontuan izan behar da ikusgaitasun ezetik edo urritik abiatzen garenean, etxeko esparru pribatutik irten eta esparru publikoetara jotzeak sustatu eta erraztu egiten duela emakumeek euren lesbianismoa publiko egitea, ezinbesteko laguntzek eman dezaketen baino aukera gehiago izaten baita beste errealitateekin eta pertsona desberdin gehiagorekin kontaktuak egiteko.

Ikusgaitasun pribatu eta publikoaren arteko desoreka hori dela-eta, ezinbestekoa da sentsibilizazio kanpaina publikoak abiatzea epe ertainean erreferentzia positibo eta sendoko sistema bat bermatzeko; horrek konfiantza emango die emakumeei euren lesbianismoa esparru garrantzitsuetan, hala nola politikan, sindikalgintzan, kulturean, kirolean, komunikabideetan eta enpresan, euren eguneroko bizimoduaren beste alderdi bat bezala integratzeko.

Lesbianek euren burua ikusgai egin behar duten testuinguruek muga handiekin jokatzen dute, dauzkaten inertzia heterosexista eta gizarte itxaropenak lesbianen interesen aurkakoak direlako. Horren ondorioz, ikusgaitasun maila onargarriak lortzeko, lesbianek euren lesbianismoa, agertzen dituzten egoeretarako erritual, arau edo eredurik ez daukaten gizarte taldeetan etengabe negoziatu, eraiki eta maneiatu behar dute eta alde aurretik ezarritako bizi gidoiak zalantzan jarri eta apurtu behar dituzte etengabe, haiek berrasmatzeko eta euren egoeretara egokitzeko. Hori testuingurua gorabehera gertatzen da: familian, lagun taldean, lanean, hezkuntza sisteman, auzoan, etab.

Jatorrizko familia testuinguru garrantzitsua da; izan ere, ezinbesteko esparrua gertatzen da gazte lesbianentzat, euren gurasoekin erabazten dituzten atxikimendu sentipen indartsuengatik eta gurasoen etxea uzteko atzerapenagatik. Hori dela-eta, lesbianismoa haien familietan agertzea oso garrantzitsua da haientzat, eta euren zoriona horren mende jartzeko gai dira. Gurasoek ez dute bizipen horren berri, orokorrean, lesbianismoari eta euren alabak bere joera onartu eta ikusgai bihurtzeko bizi duen aldi luze, zail eta beldurrez bete horri lotutako guztia ezezagun dutelako. Ezagutzen ez dutelako edo euren alaben lesbianismoa onartu nahi ez dutelako, orokorrean, gurasoek ez dute parte hartzen euren alaba nerabe eta gazteen garapen

afektibo eta sexualean esku hartzen eta, horren ondorioz, alabentzat laguntza eta onarpen iturria izateari uzten diote; hori dela-eta, beste toki batzuetan, hala nola "giroan" edo GLBT elkarteetan bilatu behar dituzte. Familia laguntza eta esku-hartze programa publikoek pertsonen sexu joera hartu behar dute kontuan, maiz oso ezkutuan geratzen den familia gatazken iturri delako eta familien baitan sexu aniztasuna sustatu behar delako.

Hezkuntza mundua, bai formala bai ez formala, garrantzi handiko beste esparru bat da, zentzu askotan emakumeek euren familietan jasotzen hasten diren heterosexualtasun normalizaturanzko hezkuntzaren luzapena delako eta lesbianismoa ikusezin bihurtzen duelako. Egun muga larriak daude, esparru hori bertatik igarotzen diren emakume lesbianen ikusgaitasuna errazten duen eremua izatea galarazten dutenak.

Ezinbestekoa da hezkuntza formal eta ez formalaren esparruan lan egitea, nerabe eta gazte lesbiana eta gayen nortasunaren garapen positiboa bermatzeko eta maiz jasaten dituzten jazarpen moralak eta eraso fisikoak saihesteko neurriak sustatuz. Besteak beste, honako neurriak guztiz beharrezkoak dira:

1. Sistematikoki, Euskadiko ikastetxe publiko, itundu eta pribatu guztietan ikasketa eta hezkuntza maila guztietako curriculumetan sexu eta genero joera aniztasunari buruzko edukiak sartzea.
2. Irakasle guztien prestakuntza iraunkorrean sexu aniztasunaren ezagutza eta genero nortasunari eta sexu nortasunari buruzko edukiak sartzea.
3. Ikasleen guraso elkarreentzat sexu aniztasunari buruzko prestakuntza mintegiak sustatzea.
4. Hezkuntza, kultura eta aisialdi erakundeen eta GLBT elkarteetan arteko lankidetzak hitzarmenak sustatzea. Ildo beretik, joera aniztasuna lantzen duten hezkuntza proiektuak prestatzen dituzten erakundeei laguntzak eta baliabideak ematea.
5. Irakasle homosexual eta lesbianen ikusgarritasuna erraztea, ikasleek erreferentzia lesbiana eta gay gertu eta positiboak izan eta une larrietan haiek laguntza izan ahal izateko.
6. Aisialditik gizarte eraldaketako balioetan lan egitea, esku hartzen duten eragileen sexu tolerantzia eta aniztasuneko prestakuntza bultzatuz.

Lan eremuan, azpimarratu behar da, gayen %16en aurrean, lesbianen %7k baino ez dutela jendaurrean agertzen euren sexu izaera. Ikusgarritasun mailletako alde hori ezinbestean dago lan munduan dagoen bazterkeria sexista handiari lotuta.

Emakumeek euren lesbianismoa jendaurrean agertzeko zalantzek agerian uzten dute bereizkeria eta homofobia agerpenak oraindik ohikoegiak direla lan tokietan eta sexu aukerak eragindako kaleratzerik eta lan bereizkeria salaketarik ez egotea ezin dela lesbophobia eta homofobiarik eztat hartu.

Emakume askok, kaleratzeak baino gehiago, zurrumurruek jomuga izateak, arreta gunea eta sexualtasunari buruzko iruzkin iragarrien erdigunea sentitzeak kezkatzen dituelako ezkututzen dute euren lesbianismoa lanean. Hala ere, ez da ahaztu behar behin-behineko lan ezegonkorrek dauzkaten emakume askok kaleratuak izatearen

beldur direlako ezkututzen dutela. Era berean, enpresetan zuzendaritza karguak izateak ez du ikusgaitasun handiagoa bermatzen.

Herri-administrazioan lan egiteak, funtzio eta hierarkia harremanak arautzen dituzten arau objektiboak izatea eta enpresek langile asko izatea lesbianen ikusgaitasuna errazten duten ezaugarriak dira.

“Luma” izateak ikusgaitasuna erraz diezaike emakume batzuei, haien lankideen aldetik heterosexualtasun presuntziorik egoteko tokirik ez dagoen neurrian, baina luma ere bereizkeriarako elementua izan daiteke tradizioz emakumeenak diren lan sektoreetan langileak kontratatu eta hautatzerakoan.

Lan esparruan beharrezkoa da indar sindikal guztiak berariaz engaiatuago agertzea lesbianak eta gayak euren lantokietan benetan ikusgai izatea sustatzeko kanpaina dibulgatzaileak bultzatzeko. Era berean, lanean bereizkeria sexistaren aurka egiten diren kanpainetan joera lesbikoaren irizpidea ere sartu behar litzateke, lesbianak diren emakumeen ikusgaitasuna berariaz errazteko xedez. Halaber, gomendagarria litzateke herri-administrazioek enpresa jardunbide egokiei eta lan harremanei buruzko gida egitea, lesbianak eta gayak ez baztertzeko aholkuak sartuz.

Besteak beste, honakoak emakume lesbianen ikusgaitasuna errazten duten eragileak dira: gizarte eta lege aurrerapenak, hedabideen bidez erreferentzia positiboak izatea, GLBT elkarteak eta elkarte feministak, migrazioak, “giro” lesbikoa, interneten dauden lesbianen solasguneak eta, orokorrean, lesbianismoaz jabetu eta hura onartzeko prozesuak, beste lesbianekin aurkitzea, norberaren sexualtasunari buruzko ezagutza handia lortzea, jolas eta kultura jarduerak egitea, jabetasuna eta emakumeen eta lesbianen eskubideei buruzko sentsibilizazioa errazten duten faktoreak. Faktore horien artean, honakoak azpimarratu behar dira: 1) adiskide lesbianen taldea edukitzea; 2) sexualtasunari buruzko arauak eta generoaren eginkizun tradizionalei dagokienez jarrera kritikoa izatea.

Urte askotan amatasunak ikusezin bihurtu ditu emakume lesbianak, nahi gabeko ezkontzen emaitza izanda seme-alabak desira lesbikoari uko egin edo hura atzeratzeko arrazoietako bat bihurtu baitziren. Hala ere, egoera aldatu egin da eta egun lesbianen ikusgaitasuna saihestezina da amatasunera askatasunez iristen denean, egungo ama lesbiana askoren kasuan bezala, batez ere lagundutako ernalkuntzaren bidez. Lortzen duten ikusgaitasunak ez du engaiamendu maila bera jasotzen herri erakundeetatik, gaur egun, hutsune handiak baitauzkate familia lesbikoen premietara egokitzeke jardunbide protokoloetan.

Gay eta lesbianen esperientziak ez homogeneizatzea garrantzitsua bada, emakumeak bizi diren gizarte egoerei dagokienez egitea ere bada. Egoera horietako bakoitza premia eta inguruabar jakin batzuei lotuta egongo da; premia eta inguruabar horiek aldatu egiten dituzte emakumeek lesbianen ikusgaitasuna kudeatzeko modua. Lesbiana sektore batzuen egoerak kezkarriak dira, honakoak direla-eta: 1) gizarte bazterkeria eta ahultasuna handiak dira; 2) nekezagoa gertatzen da haien ingurune gertuek eta jotzen duten gizarte zerbitzuek haien lesbianismoa onartzea; eta 3) aukera gutxiago dago gizarteratze lesbikoko baliabideak lortzeko. Lesbianismoaren ikusgaitasuna

ezdeusa edo oso eskasa izan daiteke honako emakume sektoreetan: 1) adinekoak, 2) etorkinak, 3) ijito etniakoak, 4) ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat dutenak, 5) ezkontza heterosexualean ezkonduko emakumeak eta 6) emakumezko transexualak.

Egoera horren aurrean, komenigarria litzateke gizarte ongizate alorreko erakundeek euren esku-hartze protokoloetan sexu joeragatiko gizarte bazterkeria eta ahultasuneko irizpidea sartzea, alor horretan lan egiten duten eragileek, pertsonen bizi kalitatea hobetzea lortzeko, sexualtasuna zelan bizi duten kontuan hartzea ere garrantzitsua izan daitekeela kontuan har dezaten. Halaber, garrantzitsua deritzogu adinekoak, etorkinak, ijito etniakoak, minusbaliatuak eta ezkontza heterosexualean ezkondukoak diren lesbiana, gay eta transexual sektoreen gizarteratzea eta gizarte kohesioa bereziki bultzatzen duten GLBT erakundeak bultzatu eta haien diru-laguntza lerroak sortzeari.

Azken hiru hamarkadotan aurrerapen handiak egin dira emakume lesbianen ikusgaitasunari dagokionez. Hori batez ere lesbiana gazteen kasuan igartzen da, euren izaera publikoki agertzeko prestago baitaude. Euren desira lesbikoaz jabetzen direnetik izi diren gizarte eta lege egoerak aukera ematen du lesbianismoa onartzeko prozesua azkar eta errazagoa izateko eta, dauzkaten baliabideak ugari eta askotarikoagoak izanda, aukera daukate prozesuak euren nerabetasuna eta gaztaroa lehenagoko hamarkadetako lesbianeiei bezain sakonki ez markatzeko.

Baina gazte lesbianen egoeraren azterketa egiteko oinarri bakarra ezin da izan aurrerapen horien pertzepzioa eta, erdietsitako lorpenetatik abiatuta, aztertu beharko da zergatik egun emakume askorentzat oraindik den ohikoa haien sexualtasunaren iratzartzea haien lesbianismoaren onarpen positiboarekin bat ez etortzea eta jabetu ondoren haietako askok oraindik bakardadez, erreferentzia positiborik ezaz eta isiltasunez betetako bide luzea izatea. Azken horiek bezalako funtsezko kontu asko oraindik ez dira aldatu; beraz, gizarteak eta gizarteratzeko erakundeek erronka handiak daukate egiazko berdintasuna lortzeko, sexu aukera zein ere den.

Gizartea esparru mugatzailea da oraindik eta, batzuetan, kaltegarria da lesbianismoa berdintasunez, askatasunez eta duintasunez garatzeko. Ikusezintasuna edo "negatiboki iradokitako ikusgaitasuna" lesbianak esparru publikoetatik urruntzea sustatzen duen funtsezko mekanismoa da oraindik. Emakume lesbianen gizarte ikusgaitasunaren bilakaerak, dirudienez, bere "kristalezko sabaia" dauka, zeinek, emakumeen zein gay eta lesbianen eskubideei dagokienez, gizartean eta legetan lortutakoarekin batera aurreratzea galarazten baitu.

Emakumeen arteko sexualtasunaren ikusgaitasun eta onarpen maila handiagoak lortzea ezin da izan emakume horien erantzukizuna bakarrik, gizarteak berak, bere esparru guztietatik (legegilea eta juridikoa, lanekoa, osasunekoa, hezkuntza eta prestakuntzakoa, kultura eta aisiakoa, komunikaziokoa, partaidetza eta elkartasunekoa), lesbianismoaren ulerpenean aurrera egiteko tresnak egituratu eta jarri behar ditu.

Ezinbestekoa da ulertzea gizarte gero eta batuagoa, pertsonen afektibotasun, sentimendu eta sexu aniztasunari gero eta begirune handiagoa diona lortzeak, bat

etorri behar duela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, eta azken hori gertatzen ez bada, gay eta lesbianen kolektiboarentzat lortutako onarpen, begirune eta ikusgaitasun maila orok gabezia handiagoa izango duela bigarrenentzat lehenengoentzat baino.

Emakumeentzat sexualtasuna egunetik egunera laketgarri eta atseginagoa, hertsadurarik gabea eta publikoki eta sozialki onartua izatea lortzea funtsezkoa da lesbianen ikusgaitasuna errazteko. Lorpen hori ezinezkoa izango da erakunde publiko eta pribatuen lan agendetan, emakumeen giza eskubideen beste zati bat bezala, sexu joerarako eta sexu eskubideei buruzko eztabaida sartzen ez bada.